



ARGIA




#2.819 | 2023/04/02 | 4,00 €

Energia, jatorrizko herrien kontura?

SAMIEN BORROKA MAKROPROIEKTUEN AURKA

21-27. orrialdeak



**"Lan kontratuak
merkatu beltzean
saltzen dira"**

12 | REDOUANE LAKRAD



**"Erakundeek
euskalgintza
limurtu dute"**

28 | NAZIOGINTZA ELKARTEA



**Agur esango du
Arizkun Rock
jaialdiak**

44 | KULTURA


OROIMEN HISTERIKOA

podcast berria Nagore Irazustabarrenarekin

*Historia diren istorioek txoratzan
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIA eta
audio plataforma
guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 17 | MIKEL ZURBANO
- 18 | ANE ABLANEDO
- 19 | NEKANE TXAPARTEGI
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | HIRUKI LARROXA

Finkoak

- 35 | BIZI BARATZEA
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 49 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
OLATZ SALVADOR
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU


 AZALEKO ILUSTRAZIOA: **NATUR OG UNGDOM**

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO

28 | NAZIOGINTZA ELKARTEA

Nazioagintza elkartereko Edurne Alegria, Luken Etxabe eta Josu Albero elkarrizketatu ditu Xabier Letonak. Bai gizartean eta baita bertako alderdi politikoen agendetan ere abertzaletasuna zazpigarren lerrora pasatu dela adierazi dute. Euskararen aldeko aktibismoa suspertu behar dela diote, "erakunde publikoek euskalgintza limurtu dutelako".

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | PERTSONAIA | REDOUANE LAKRAD

"Poliziek mutil marokoar bat ikusten dutenean lehertzear dagoen bonba ikusten dute"

Reyes Ilintxeta

21 | INGURUMENA

Samien eta maputxeen borroka, Statkraften parke eolikoaren aurka

Karlos Zurutuza

26 | INGURUMENA

Meatzariak ere samien lurrei so dira

Nicolas Goñi

32 | NAZIOARTEA | UKRAINAKO SINDIKALISTA

"Gerra-egoerako legediak soldatak ez ordaintzeko aukera ematen die enpresariei"

Natalia Nikulenkova

40 | KULTURA | DOINUELE

Zortzi ekimen, hamaika aukera eta helburu bera

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA | ARIZKUN ROCK

"Dena eginda jaso nahi dugu eta galtzen ari da militantzia"

Gorka Peñagarikano

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Maia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A large crowd of people is gathered at night, holding a large black banner with the words "HATOR HATOR" written in white, bold, capital letters. The scene is illuminated by streetlights, creating a bokeh effect in the background. A traffic light is visible in the foreground, showing a red light. The crowd is dense, and many people are looking towards the camera. The overall atmosphere is one of a significant public demonstration or protest.

HATOR
HATOR

Amaitu dute

Duela 34 urte, agintari sozialistek, X jauna buru, diseinatu zuten. Eta abiatu zuten Euskal Herriko indar politikoen gehiengoaren babesarekin. Helburua oso sinplea: ahalik eta jende gehien sufriarazita, ETAk eta ezker abertzaleak borrokatzeari uztea. Eraitza: gertukoak bisitatzeko bidean hil diren 16 lagunak, ehunka zaurituak, galdutako milioika ordu eta sosak, eta gehienbat, zenbaezina den alferrikako sufrimendua. Baita elkartasun uholde eta borrokarako grina ere. Oharkabean amaitu da sakabanaketa. Asmatu zuten alderdikoek hala erabaki dute, honezkero ez zaielako baliagarri, garaipen politikoa haiena dela iritzita. Baina guri mina sortzeko haiek asmatutakoa ezabarazteak poza dakar ezinbestean. Ehunka iheslari, errefuxiatu eta presoak etxeratzeko garaia dator.



ETX
ERA

Frantziako Tourra Bilbotik hasiko da: oro ez da urre

JON TORNER ZABALA / LEIRE RODRIGUEZ GARMENDIA

2023ko Frantziako Tourra abiatzeko 100 egun falta direnean, atzerako kontaketa egingo duen erlojua aktibatu dute Bilbon, ekitaldi distiratsu batean. Hala ere, Frantziako Tourrak badu kameraren fokuetatik aparteko beste alde ez hain dotore bat ere.

1. MILIOIAK INSTITUZIOETATIK

El Saltok otsailaren amaieran eman zituen datuen arabera, 14,2 milioi euro bideratuko dituzte Frantziako Tourrera EAEko instituzio publikoek. Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak 3,2na milioi euro, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2,4 milioi. EAEko gainontzeko aldundiek eta hiriburuek ere jarriko dute dirua.

2. GEHIEGIZKO PREZIOAK

Bilbotik hasiko den Frantziako Tourra ikuskizun turistikoa izango da Euskal Herri osorako, bereziki Bizkaiko hiribururako. Bilbo bisitariak erakartzeko gune bihurtu da, eta ekitaldiak izan ditzakeen eraginak kezka sortu du. EH Bilduk mozio bat erregistratu du martxoko Bilboko Udaleko Osoko Bilkurran eztabaidatzeko, "beharrezkoak diren mekanismoak" ezartzeko etxebizitza turistikoan "legezketasuna kontrolatzeko" eta prezioen igoera "indiskriminatua" saihesteko.

Hotelen bilaketa kudeatzen duen Trivago plataforman bilaketa azkarra eginda ikus daiteke, adibidez, Bilboko Bed4U ho-

telean 3.072 euro balio duela gaua pasatzea Tourraren lehen egunean. Konparazio gisa, larunbat honetan, martxoaren 25ean, gehienez 140 euroren truke eskaintzen da logela.

3. DOAKO BOLUNTARIO-LANAK

"Ez da onargarria doan lan egingo luketen 1.000 boluntario eskatzea", zioen Arabako Txirrindularitza Federazioko presidentea Julia Liberalek, *El Correo* egunkariaren martxoaren 6ko zenbakian. Izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako federazioei egin die dei Frantziako Tourrak, orotara 3.000 boluntario "bilatzeko". Deiak, baina, ez du inolako "ordainsaririk" aipatzen, eta federazioak kexu dira horregatik. ASOk, Frantziako Tourra antolatzen duen enpresak, ia 60 milioi euro irabazi zituen 2020an. *Berria* egunkariko kazetari Imanol Magrok txio batean dioen moduan, "lanarengatik ordaintzen ez duzunean, normala da 59,5 milioi euro irabaztea".

4. OINARRIAN HUTSUNEAK

Oinarrizko kirola aipatuta, urak harro datoz Gipuzkoan. Martxoaren 2an jakin genuen Aiztondo Klasikoa bertan behera geratuko zela, lasterketan lotura lanak egingen dituzten motozaleen egoera dela-eta, besteak beste. "Araozak ez dira guri dagozkigunak, oinarrizko ziklismoak oro har sufritzen dituenak baizik", zioen Aiztondo

Klasikoaren batzorde eragileak. Gipuzkoako Federazioak ere oharra ateratu zuen: "Gipuzkoako Errepideko lasterketak bertan behera geratzen dira antolatzaileek gutxieneko segurtasun hori lortzen ez duten bitartean. Ez dugu ahaztu behar ezta ere Frantziako Tourrean ikustea izango dugun txirrindulari profesional horietako askok hasierak txirrindulari eskoletan, kadete, junior eta 23 urte azpiko lasterketan izan dituztela. Hau da, orain antolatzeko zailtasunak ditugun horietan!".

Astebetara, iragarri zuten "partxe" bati esker denboraldia hasi zitekeela, baina motozaleen aferak oinarrizko txirrindularitzak bizi duen egoerari buruzko beltzune gehiago azaleratu du, Federazioak nabarmendu duen moduan: N1 errepidea ezin ukitzea, astean zehar lasterketarik ezin antolatzeari, ertzain nahikoa ez izatea...

5. TOURRA ETA VUELTA EZ BEZALA, ITZULIA EZ DA IPAR EUSKAL HERRITIK PASAKO

Kirol ekitaldi handiak "erakusleiho" izan eta hiriak "mapan kokatzearen" mantraz Jon Tornerrek idatzi zuen blogean: "Bilbo edo dena delakoa zehazki zein mapatan kokatu nahi dugun kontuan hartu beharoko litzateke. Alferrik ari baikara Tourra Bilbora erakartzen, inguruko lasterketak bizirauteko larri dabiltzanean, harrobia bultzada baten beharrea, Bilbok ez duenean bizikletan ibiltzeko azpiegitura egokirik eta Bizkaia belodromo estalirik, Euskal Herriko Itzuliaren ibilbidEAE hau denean... Mapa, ze mapa? Zein da kirol ekitaldi ponposo hauen bidez sendotu nahi dugun lurraldea, sendotu nahi dugun herria?".

Bada datu kuriosoa honen guztiaren inguruan, Mikel Irastorza kazetariak nabarmendu duenez: aurtengo Vuelta Xiberoatik pasako da, Frantziako Tourra ere, Lapurdiz gain. Aldiz, Euskal Herriko Itzulia ez da Ipar Euskal Herrian sartuko. Esanguratsua. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Kamehameha egoerak



UXUE APAOLAZA LARREA

Imajinatu, nonbait honetako elkarteren batean, neska sartu berri batek, inozentzia osoz proposatzen duela komunean, komuneko papera dagoen moduan, konpresak edo tanpaxak jartzeko. Eta komuneko papera jartzeaz arduratzen den kidea guztiz asaldatzen dela bere adinean konpresak u-ki-tzen hasi behar al duen galdezka. Zuri. Eskuak erakusten dizkizun bitartean. U-ki-tu. Zuri. Hori ez da gertatu, noski, asmatu egin dut. Baina istorio asmatu horretan, mutu nago, eta buru barruan zerbaiten bila hasita, kamehameha baino ez zait ateratzen. Kamehameha da azkenaldian, maizegi, bururatzen zaidan erantzun bakarra.

Batzuetan, zeure neurriko ingurua egin duzulako, denbora batez ingurune horretan goxo egoteko aukera izan duzulako, irakurtzen duzuna ere zeure neurrikoa delako, hilekoari buruzko iragarki batean odola gorri jarri dutelako, azkenik... ez dakit, gai batzuei buruzko argumentarioa ia ahaztuta daukazu, gainditutzat duzu, beste gai arantzatsuagoetan zentratuta zaude, nik zer dakit, prostituzioa.

Baina ez. Burbuilatik atera orduko ohartzen zara ezetz. Eskerrak gizonak ere kaka egiten duten. Benetan. Bestela, emakumeok komuneko papera eramango genuke poltsan. Gizonak ez lukete ukitu ere egin nahiko, eta auskalo, agian, kaka zutik egin beharko genuke. Hilekoa gizonak balute, berriz, zer litzateke? Ez dakit konpresarik egongo litzatekeen, izan ere, ziur, bakoitzak zenbat litro odol bota lehiatuko liratekeela. Konpresak, egotekotan, galtza motzen goiko edo beheko aldetik ikusiko lirateke.

Eta, agian, gizonen gauza balitz, klase aldagaia ere argiago ikusiko genuke. "Konpresak jartzeak aurrekontuan eragina izango du". Komuneko paperak ere bai (eskerrak gizonak ere kaka egiten duten), eta gizonak pixa azkarrago egiteko komunek ere bai. Zera, hori, kamehameha. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



EUSKAL HERRIAN
BIZI... RAUN!

ADUR

Klima larrialdia

Klima larrialdiak dagoeneko saihestu ezin daitezkeen ondorioak ekarriko dituen arren, berehala neurri eraginkorragoak hartuz gero bada esperantzarik, planeta 1,5 gradu zentigradu baino gehiago ez berotzeko eta "denontzako etorkizun bizigarria ziurtatzeko". Hala dio IPCCko zientzialarien azken txostenak.

Transexualak

Munduko Atletismo Federazioak debekatu egingo die emakume transei nazioarteko lehiaketetan parte hartzea. Trantsizioa pubertarotik aurrera egin duten emakume transek ezin izango dute emakumezkoen kategorian lehiatu. Testosterona maila altua duten emakumeek ere ezingo dute parte hartu.

Erretreta

Macronek erretreten erreforma pasa arren, herritarrak ez dira amore ematekotan. Tonua gogortuz joan da manifestarien partetik eta blokeoak eta barrikadak ikusi ditugu karriketan. Ikusteko dago nola erantzunen dion horri gobernuak eta Macronek entzungor segituz gero zer nolako segida izanen duen mugimenduak.

15 minutuak



ULA IRURETAGOIENA

Aurreko hilabetetik hona hirigintzako kontzeptu bat eztabaida publikoan sartu da: 15 minututako hiri. Batzuek susmoa zabaldu dute gertutasuna eta ongizatea bultzatzen duen hiri idilikoaren atzean itxialdi-egitura bat ezkutatzeko dela, helburua gure bizimodua ghetto guneetan eta burbuila isolatuetan konfinatzea dela, gizartea kontrolpean izateko. Esan gabeko nahien artean, auto pribatuaren erabilera debekatzea da. 2020ko itxialdian ezarritako neurriak 15 minututako hiriaren aurreproba bat izan ziren eta orain eredu Europako hirien artean zabaltzen ari da hiri-diseinu politika nagusitzat joaz.

Carlos Moreno hirigileak krono-hirigintzaren bidez denboraren parametro hiri eta lurraldearen antolaketara ekartzeko proposamena egin du, 15 eta 30 minutuko denborak definituz. Morenori egozten zaio eredu asmatzea, eta gertutasunaren hirigintzari buruzko liburu argitarapenarekin batera sare sozialetan jazarpena pairatu duela salatu du, esan gabeko helburuak ezkutatzeko dituen plan baten ideologotzat hartuta.

Demagun baietz, 2030eko Agendaren helburuen artean 15 minututako hiri eredu finkatzea dagoela eta ingeniari-ritza soziala martxan dutela. Inporta al du horrek, baldin eta gure bizimodua autoaren beharrik gabeko eguneroko bat erdieste bada? Kontra-argudioak askatasun galtzearen eta totalitarismoaren beldurretan aldrebestuta antzeman ditut, ereduak sustatzen duen bizimoduaren inguruan aipamenik egin gabe.

Ezkertiar politiken diskurtsoetan azkar bereganatu da 15 minututako hiri eredu hauteskunde atarian, eta askotan, ereduaren zailtasun eta ondorioak ez dira sakontzerantz iristen. Baina oinarri teoriko zabalak dituen 15 minutukoaren azken helburua bizi garen lekuarekiko maitasuna sustatzea omen da, maitasuna oinez eta gertu egin beharreko egunerokoan praktikatzeko baita. Akaso maitasunari buruzko eztabaidarantz eraman beharko genuke hiri eredu polemikoa. ●



Protesta artean onartu du Frantziako Gobernuak erretireten erreforma.

Legebiltzarraren antzerkia

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Teatroa hastera zihoala zioen Glaukomaren 2013ko kantu batek. *Kañeroa* abestia, ezkorra, errealista, eta ezeren gainetik kritikoa, aldarrikatzailea; ziur hura entzunda lepoko zainen bat borborka jarriko zitzaiokeela baita ezagutzen duzun aukozide eskuinekoenari ere. Edo agian hobe zatekeen, orduko hartan bederen, kantua ez erakustea. Akaso epailearen aurrean jesarrarazi nahiko zituzkeen-eta, nork daki, ezer gutxigatik kriminalak bailiran epaitzen baitziren halakoak Espainian, besteak beste politikarien ustelkeria salatzeagatik –gerora, zenbaitetan, frogatuta geratu da–. Mozala erantziko zigutela hitzeman zuten arren, baten batek jan du bere hitza, eta hemen ez da ezer pasatzen.

Hamar urte igaro dira *legebiltzarraren antzerki*az oholtza gainetik horrela ohar-tarazi zutenetik, eta esaldi hura bera etorri zait gogora azken asteotan ikusitako ondotik. Orainaldian konpultsiboki bizi gara, munduarekin pulsu etengabe, *orain-orain-orain* eta pasa den astekoaz zeharo ahaztuta, baina badirudi, ordea, ez garela askorik aldatu –beste argudio bat, bide batez azkeneko aipatutako dut Glaukomaren kantua: “Euskal Herria igandero ‘*viendo el conquis*’” ere bazioen kantua; aldatu den bakarria, igandetan beharrean astelehenetan dela–.

Zientzia politikoen akademian asko erabiltzen da Robert A. Dahl-en *On Democracy* (“Demokraziaz”, 1998) liburua. Sistema politiko garaikidea eta tartean botereen banaketa ulertzeko hainbat gako esanguratsu ematen dituela esaten da, eta bere horretan, sinpleenera jota, erraz uler daiteke legeak egin eta onartzearen zeregina herritarrek hautatuko alderdi politikoena dela, legebiltzarrarena; eta gobernuan dagoenaren ardura dela, berriz, lege horiek praktikan jartzea, exekututzea. Teoria ondo ikasita daukanak, ordea, zaplazteko ederra jasotzen du aplikazio erreala ikusita, batak beste zapalzteko –edo betikoak betikoak zantpatzeko– mila tramankulu dituelako. Izan daiteke 49.3 artikulua edo izan daiteke beste edozer, baina jazarri nahi duenak hala egiten du. Legez babestuta dago, agintean dagoenak legeak egiteko zeregina duenari eskumena indargabetzea. “Zuen babesa behar dut; baina lasai, ez banauze babestuko ere berdin zait, zuen gainetik nago-eta”. Populartasuna galduko zuen Macronek, baina ez dio gehiegi axolako, lege ezin baitu berriz ere presidentetzara aurkeztu. Mauka ederra berea, ez baitu ezer galtzeko.

Sánchezena ere ez da atzean geratzen, bere aurkako zentsura moziora irribarretsu sartzeko modua aurkitu duelako. Ez zegoen zalantzi, tronua galtzeko beldurrik ez zuen, eta kamera aurreko minutuak boto emaileei masajea emateko baliatu zituen Sánchezek. Parean zuenak, ustezko hautagaiak, presidentearen diskurtsoan aspertu egin zela aitortu eta ezer gutxi gehiago egin zuen. Hauze da legebiltzarraren antzerkia? Egon, Hego euskal herritarrok, hartu agenda: bi hilabete falta dira maiatzerako. Eta gero esan zer den hau, drama ala komedia. ●

5

etxebizitzetatik bat bigarren etxebizitza da Ipar Euskal Herrian, EH Bairen azterketaren arabera. 42.743 etxebizitza hutsik egon dira gutxienez zortzi hilabetez. Bigarren etxebizitza gehien Lapurdiko kostaldeko herrietan daude.

4.000

gazte donostiar baino gehiago Gipuzkoako beste herrietara joan dira bizitzera 2010eko hamarkadan. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak dira.

17

ikastetxe publikok eskolan bertan sukaldea egiteko eskari bateratua egin diote EAEn Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

“PAI eredua indargabetuko duen foru dekretu berri baten alde lan egingo dugu”

MARIA SOLANA

Geroa Baiko bozeramailea.

2023-03-24



“DONOSTIAKO UDALAK ILLUNBEKO ZEZENKETAK LAGUNTZEN JARRAITZEN DU”

EGUZKI ERAKUNDE EKOLOGISTA

Turismo zinegotziak Urrezko Maskorra saria eman dio berriki Roca Rey toreatzaileari. Horren harira egin ditu adierazpenak Eguzkik.

2023-03-24

“Kontsumitzaileak gehiago ordaintzen du, baina ekoizleok gutxiago kobratzen dugu”

AIARALDEAKO SOS BASERRIAK

Abeltzaintza eta nekazaritza sektoreak bizi duen egoera larria salatu du plataformak.

2023-03-22



TEKNOLOGIA

Ikasteko giroa



DIANA FRANCO

Beharbada haur txikiak dituzuenok ezagutuko duzue Haur Hezkuntzan gelaren baitan ematen den txokoaren dinamika. Bertan haurrak leku batetik bestera mugitu daitezke, esplorazio, esperimentazio, ikasketa eta partekatze etengabeko dinamika batean. Txokoek gai, material, tresna ezberdinak dituzte, eta haurrek bakoitzean gauza ezberdinak egin ditzakete, edota gauzak nahasi, dutenarekin jolas dinamika berriak sortuz. Ni ez naiz hezkuntzan aditua, baina ikasteko giro batean pentsatzen dudanean ez zait gela bat etortzen burura, ezta egun hain erabilia den pantaila ere... Haur Hezkuntzako txokoak datozkit burura, materialak, tresnak eta harremanak etortzen zaizkit burura. Haur Hezkuntzako txokoak niretzat inspirazio hutsa dira.

Teknologia asko zabaldu da hezkuntzan, mundua ulertzeko beharrezkoa izateraino. Lehen Hezkuntzatik jada badabilta ikastetxeetan teknologia ezberdinak esperimintatzen, batez ere programazioa. Teknologia ikasteko bidean, hezitzaileek ondo ulertu dute egitearen beharra. Egitearekin joaten gara ezagutza geureganatzen. Gaur egun, teknologia egite prozesu hauek ikastetxeen errealitate mugatueta egokituta daude, dena dago ezagutza unitateetara mugatuta: Kit-ak, proiektuak... Beharbada ikasteko prozesua kontrolatzeko modurik eraginkorra hori da.

Baina Kit-ak barik, proiektu itxiak barik... zer gertatuko litzateke ikasleei teknologia ikasteko giroa eskainiko bagenie? Zer gertatuko litzateke haur txikiak txokoetan jolas librea duten moduan, gazteek txoko teknologikoak izango balituzte, non beste gazte eta pertsona batzuekin teknologia esperimintatu, esploratu, eta kit eta prozesu itxietatik aldentzeko tarteak ere izango balute? Zelan eraldatuko luke horrelako dinamika batek gure hezkuntza sistema? Eta teknologia sorkuntza moduak? Bizi ditugun gizarteak? ●

NAZIOARTEA



EMILIO MORENETTI - AP

Ura falta da ala konponbideak?

AXIER LOPEZ

Duela urte batzuk, artikulu hau ilustratzen duen argazkia nongoa den galdetuko baligute, seguruenik, gehienok erantzungo genuke "Afrikan, nonbait". Gure begirada eurozentratarren makurra alboratu gabe, beste kontinente bateko kontu urrunak zirela ziruditen lehorreak edota desertifikazioak. Duela pare bat astekoa da argazkia, Bartzelonatik 85 kilometrorra egina, Sau urtegiaren. Egun bere gaitasunaren %7an dago beteta. Kataluniak bere historiako lehorterik handienetakoa bizi du. Bartzelonako Fabra Behatokia 1914an hasi zen erregistratzen eta ordutik 2022 eta 2021 inoizko urterik lehorrenak izan dira. 2023 ildo beretik doa.

Urrutikoak edo koiunturalak iruditzen zitzaizkigun klima-prozesu "berri" hauek nola kudeatzen ari garen ikusteko adierazgarriak dira Sau urtegiaren hartutako neurriak. Azken asteotan txalupa bat urtegiako arrain guztiak arrantzatzen hasi da, ondoren erraustegi batera eramateko. Operazioaren helburua urtegitik ahalik eta arrain gehien ateratzea da, oxigeno faltagatik hilez gero, ura kutsatu ez dezaten eta gizakiarentzat "erabilezin" bihurtu ez dadin. Konponbidea: masiboki hiltzea – hirurogei tona animalia –. Espezie inbaditzaileak dira guztiak. Eta guztiak gizakiek nahita sarrarazitakoak. Karpak adibidez, ibaiekin eta lakuetan sartu zituzten kirolarrantza sustatzeko.

Kataluniako 15 eskualde, 224 udalerri eta 5,9 milioi biztanle daude Generallitateak ezarritako salbuespen-egoera-

ren eraginpean. Beste askoren artean, ondorengo murrizketak ezarri dizkiete: nekazaritzarako uraren %40ko murrizketa, industriarako %15ekoa, 230 litro biztanleko eta eguneko. "Ezin zaie herritarrei murrizketarik jarri eta, aldi berean, turismoa sustatzen jarraitu makroproiektuekin, hala nola Joko Olinpikoekin, Hard Rockekin edo Prateko aireportuarekin. Zer herrialde eredu nahi dugun eztabaidatu beharrean, herrialdea salgai dagoen parke tematiko bihurtzen jarraitzen dute", salatu du CUPEk.

Aigua es vida elkarteak ohartarazi du lehorreak ohikoagoak izango direla eta Katalunian "2051n %22 ur gutxiago" izango dutela.

Lehen koiunturaltzat ikusten genuena gero eta ohikoagoa bada, egiturazko arazo bihurtzen dela. Eta beraz, egiturazko konponbideak behar direla, eta ez petatxuak.

URA, ESKUBIDE

Uraren Mundu Eguna dela eta, joan den asteazkenean abiatu zen NBeren Uraren Konferentzia, ur-baliabideak babestea eta ur eta saneamendu egokia pertsona ororen esku jartzea helburu. Klima aldaketak eta kutsadurak areagotutako "ur gezaren krisiaz" ohartarazi zuten. NBeren kalkuluen arabera, 2.300 milioi pertsona bizi dira estres hidriko handia duten herrialdeetan, 2.000 milioi ez du ur edangarririk, eta munduko biztanleriaren ia erdiak giza hondakinak tratatzen ez dituzten saneamendu-zerbitzuak erabiltzen ditu. ●

Hezkuntza euskaraz izan dadila aldarri

GAZTE EUSKALTZALEEN SAREA

HEGO EUSKAL HERRIA / Milaka lagunek ikasketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu dute. Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egin dituzte mobilizazioak, "hezkuntza euskaraz izango da" lelopean. Euskal Herrian ikasketa prozesua euskaraz egiteko zailtasunak salatu eta ikas prozesua %100ean euskaraz izatea bermatu dadila eskatu dute.



Euskara

Euskara batuaren aldeko giza katea egin dute Erreteriatik Donostiara. "Batasunaren bidean" lelopean, 8.000 lagun bildu dira, 8.226 metroan zehar. Euskaltzaindiak eta Ikastolak herriari egitasmoak antolatutako ekimena izan da.

Eliza

Joseba Segura Bilboko gotzainak Elizaren sexu abusuak aitortu ditu lehen aldiz eta otoiitz egin du sexu abusuaren biktimei barkamena eskatzeko. Otsailean, Bilboko Elizbarrutiak sexu abusuaren inguruan egindako ikerketaren emaitzak eman zituen.

Migrazioa

Bidasoa Etorkinekin taldeko eta Etorkinekin Diakité federazioko hiru kide atxilotu zituen joan den astean Frantziako Poliziak, "atzeritarren sarrera, zirkulazio edo egonaldi irregularra erraztea" leporatuta. Ordu gutxira askatu zituzten.

Redouane Lakrad

PARIS 365-EKO FUTBOL JOKALARIA



POLIZIEK MUTIL MAROKOAR BAT IKUSTEN DUTENEAN LEHERTZEAR DAGOEN BONBA BAT IKUSTEN DUTELA EMATEN DU



Patera batean Iberiar penintsulara iritsi ondoren, Iruñera etorri zen duela urte eta erdi. Iturgintza ikasten ari da eta Paris 365 jantoki sozialak abian jarritako futbol taldeko kidea da. Zenbait erabiltzailek osatutako talde honetan harreman eta adiskidantza sareak hedatzea da Johan Björkström eta Mikel Lizaso entrenatzaileen helburua. Elkarrizketa hau Redouanerengana hurbiltzeko aitzakia ederra izan da. Nola ezagutu behar nuen nik gazte marokoar bat, bestela?

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zergatik erabaki zenuen Maroko uztea?

Ikasi, lan egin, nire familiari lagundu eta jendea ezagutu nahi nuelako. Bizimodu hobea baten bila etorri naiz. Maroko oso polita da, baina gobernua oso gaiztoa. Ez dute aukerarik ematen aurrera ateratzeko. Hemen desberdina da. Hemen gazteek aukerak dituzte gauza onak egiteko. Han ez dago ezer.

Iruñean dagoen zure beste anaia zer moduz dago?

Ongi. Pisu batean dago beste bi gazterekin. Aste osorako janaria ematen diete eta zaintzen dituzte. Laster 18 urte be-

teko ditu eta handik aterako da. Orain mekanika ikastaro bat egiten ari da eta bermatutako errenta kobratzeko pape-
rak prestatzen. Nirekin bizitzera etortzea nahi dut. Hemen beste familiarik ez dudanez, oso garrantzitsua da berarekin egotea. Bakarrak egotea oso zaila da. Amarekin Whatsappeko bideo-dei bidez hitz egiten dut, baina nahiago nuke bere ondoan egon.

Aita-ama ere ekartzea posible ikusten duzu?

Orain ez. Horretarako lan on bat behar duzu, etxe bat, dirua... Orain ez, baina etorkizunean espero dut baietz.

Ikasteko aukerarik izan duzu Marokon?

Bai, Bigarren Hezkuntzara arte ikasi dut. Gero hasi nintzen fruta eta barazki saltzaile lanean. Hiru gurpileko motor txiki bat nuen eta horrekin merkatu handira joaten nintzen fruta eta barazkiak erostera, gero kalean saltzeko, baina ez nintzen ongi sentitzen lan horretan. Nahiago nuen bidaiatu eta zerbait ikasi etorkizunean lanbide hobea izateko. Marokon saltzaileek ez dute etorkizunik eta oso bizimodu gogorra da. Goizeko 9:00etatik gaueko 22:00ak arte aritzen dira lanean.



Redouane Lakrad

OUJDA, MAROKO, 1997



Marokon bere familiarekin bizi zen eta dioenez, ongi zegoen amarekin, aitarekin eta anai-arrebekin. Ez da etxetik atera den bakarra, anaia zaharrena Belgikan dago, eta beste bat Iruñean, adingabeentzako pisu batean; arrea eta 12 urteko anaia txikiena oraindik amarekin daude. Anaia txikiak ikasi behar duela dio, baina geroago ikusiko dutela nola egin hona ekartzeko. Arrea ez, ordea, hark 15 urte dituela eta hiruzpalau urte barru ezkondu eta han geratuko dela dio.

Zure gurasoek lan egiten dute?

Aita nekazaria da. Aitonak badu lur zati bat eta han egiten du lan. Barazkiak, tipulak, azenarioak, patatak... ereiten ditu, baina soilik etxerako. Ez du saltzeko ematen. Justu-justu familiak jateko adina.

Nola erabaki zenuen hona etortzea?

Marokoko lagun asko ezagutzen ditut Espainiara etorri direnak eta haiek esaten zidaten etortzeko. Amarekin hitz egin nuen eta kezkatu zen. Badakizu, amen bihotzek asko sufritzen dute, baina nik esaten nion nire bizimodua bilatu behar nuela. Askok hitz egin ondoren, azkenean onartu zuen.

Zenbat diru kosta zitzaizun bidaia?

5.000 euro ordaindu nituen hona etortzeko. Diru pixka bat nirea zen, bestea familiarena.

Erraza da patera bat aurkitzea halako bidaia bat egiteko?

Bai, baina kontuz ibili behar duzu dirua lapur ez diezazuten. Orain bidaiatzea lehen baino zailagoa da. Askok igo dira prezioak. Orain 8.000 euro balio du.

Nolako izan zen bidaia?

Lehenbizi Aljeriara joan nintzen. Han hilabete bat eman nuen itsaso egokiaren zain. Bost aldiz saiatu ondoren, azkenean iritsi zen eguna. Niri soilik bost ordu kosta zitzaidan iristea, baina nire lagun asko itsasoan lauzpabost egun egitera iritsi dira, batere janaririk gabe. Oso arriskutsua da. Oran hiritik atera eta San Jose izeneko turistaren hiri batera iritsi ginen, Andaluziara. Hamabost pertsona ginen, denak gizon gazteak, eta onik iritsi ginen.

Jende asko gelditzen da itsasoan, tamalez...

Askok. Beste batzuk Turkiatik etortzen dira oinez, zazpi edo zortzi hilabeteko bidaiari. Askotan elur gainean ibiltzen dira hilabeteetan eta haietako askok bidean hiltzen dira. Nire lagun bat, orain Iruñean dagoena, zortzi hilabetez ibili zen eta ikusi zuen jende asko hiltzen hotzarengatik, baina ezin zien lagundu bera ere oso gaizki zegoelako.

Beldur handia pasa zenuen pateran?

Bai, pixka bat. Zorionez nirea zeharkaldi laburra izan zen. Lehenago ere beldur nintzen, inoiz ez dakizulako zer gertatuko den itsasoan. Gainera,

Aljeriako Gobernuak ez du jendeak itsasoa zeharkatzerik nahi eta marokorak itsasoan aurkituz gero, harrapatu eta kartzelara bidaltzen ditu. Kontu handiz ibili behar da. Ni kasik harrapatu ninduten hainbat aldiz.

Marokorak bazara Aljeriako kartzelak oso gogorrak dira. Zain egon behar duzu Marokotik paperak bidali arte, gero zu bueltan hara bidaltzeko eta bitartean oso latza da, baina hala-koa da bizitza...

Igerian badakizu?

Bai, baina itsaso zabalean zaudenean igeri egiteak ez dizu ezertarako balio. Nora zoaz? Espainiara? Aljeriara itzuli? Zerbait gaizki joanez gero, egin dezakezun bakarra da itxoitea ea Gurutze Gorria edo norbait zure bila datorren. Zortea baduzu norbait etorriko da, bestela hilko zara.

Penintsulara iritsitakoan zer egin zenuen?

Ezer gabe iritsi nintzen. Almeriara joan nintzen eta ondoren Madrilen dagoen Marokoko lagun batek Madrilerako autobus txartela ordaindu zidan. Han gelditu nintzen bost egun, eta gero Iruñera etorri nintzen.

Zergatik Iruñera?

Madrilen esan zidatelako hemen laguntza eta aukera asko zeudela. Espainiako beste toki gehienetan baino gehiago.

Eta zer aurkitu zenuen hemen?

Bi hilabete eta hamar egun egon nintzen kalean eta etxabe batzuetan lo egiten. Irailaren 9an iritsi nintzen hona eta hotz handia zegoen. Egunez janari bila ibiltzen ginen eta ezagun batzuek esan zidaten Paris 365eko jantoki sozialera joateko, han doan jaten ematen zutela. Han janaria ez ezik bestelako laguntza ere eman zidaten. Bada neska bat Marta izena duena eta beste bat Jone deitzen dena. Gizarte laguntzaileak dira eta oso-oso atseginak. Haiek Gurutze Gorriarekin hitz egin zuten ni programa batean sartzeko eta poliki-poliki dena iristen joan da: bizitoki bat, ikasketak egiteko aukera, gaztelaniazko klaseak eta, sei hilabete beranduago, errenta bermatua kobratzeko aukera. Pazientzia handia izan behar da, baina iristen da. Paris 365ean laguntza izugarria eman



zidaten eta horregatik nik ez dut inoiz ahaztuko zer egiten duten ni bezalako etorkinekin.

Orain nola bizi zara?

Orain ongi nago. Pisu batean bizi naiz nirekin pateran etorri zen lagun batekin, beste gazte bat eta Espainiako gizon batekin. Errenta bermatuaren erdia behar dut pisua pagatzeko eta beste erdiarekin beste guztia ordaintzen dut. Dena oso garesti dago.

Iturgintza ikasten ari naiz. Bost hilabete izan naiz Bideko Ama Birjinaren ikastetxean eta orain praktikak eginen ditut enpresa batean. Gero, hurrengo ikasturtean, irailean, jarraituko dut Lanbide Heziketa ikasten hozkailuetan, hotz-instalazioetan eta halako gauzetan espezializatzeko. Ikasten ari naizena asko gustatzen zait.

Zuk aukeratu zenuen?

Bai, nik aukeratu nuen zer ikasi.

Erresidentzia-baimenik baduzu?

Oraindik ez. Etorri nintzenetik hiru urte pasa arte itxoin behar dut erresidentzia baimena lortu ahal izateko. Horretaz gain, lan kontratu bat behar da, baina oso zaila da. Bada jendea lan kontratuak merkatu beltzean saltzen dituen.

5, 6 edo 7 mila euro eskatzen dizute. Nik jende asko ezagutzen dut kontratua erosi duena. Orain dela gutxi hemen Nafarroan aldatu dena da formakuntza jasotzen ahal duzula paperik ez izan arren eta hori oso ona da.

Eta paperik gabe nola bizi zara?

Hori da falta zaidan bakarra. Pasaportea daukat, medikua, garraio txartela... Horrekin aski da bizitzeko erresidentzia lortu arte, arazotan sartzen ez bazara. Bizimodu normala egiten baduzu inork ez du zurekin hitz eginen, baina badira mutil batzuk gauza txarrak egiten dituztenak eta horiek bai dituztela arazo asko.

Duela gutxi mutil marokoar bat atxilotu zuten Gazteluko Plazan neska bat bortxatzeagatik. Holako berriek kalte handia egiten diote etorkinen irudiari?

Jakina. Espainiako Gobernuak gauza bat egin behar du argi eta garbi: norbaitek zerbait txarra egiten duenean bere jaioterrira bidali behar du bueltan, gehiago hitz egin gabe. Gaur atxilotu eta berehala daude berriro kalean, horregatik mutil batzuek gauza txarrak egiten dituzte. Gobernuak zorrotz jokatu behar du jende gaitztoaren aurka.



OF THE RECORD IRUÑEAN, XXI. MENDEAN

“Paris 365eko taldekide bat jolastu ezinean izan da denbora luzean, kalean lotan zegoenean arratoi batek oin batean eman zion hozkada infektatu egin zitzaizolako. Oraindik gaizki dago”.

Oso ongi moldatzen zara gaztelaniaz. Ari naiz. Urte bat eta hiru hilabete dararamat Jose Maria Iribarren ikastetxean ikasten.

Eta euskara?

Gustatuko litzaidake ikastea. Hitz batzuk jada ezagutzen ditut: andrea, neska polita, eskerrrik asko... [irriz]

Zer moduz zaude Paris 365 futbol taldean?

Oso gustura. Hasieran, ezer ez genuenean, Gaztelu Gibelean, autobus geltokiaren ondoan, entrenatzen genuen Johan eta Mikelekin. Poliki-poliki hobetuz joan gara eta orain Larrabide estadioan entrenatzeko aukera eman digute. Astean bi aldiz etortzen gara eta zelaiaz gain, hemengo aldagelak eta dutxak erabili ditzakegu. Larunbat eta igandetan partiduak izaten ditugu. Orain hobeki sailkatuak gaude.

Zer eman dizu talde honetan aritzeak?

Txikitatik asko gustatu izan zait futbola. Talde honetan, gainera, nire herrialdeko mutilekin nagoenez, familian bezala sentitzen naiz. Hizkuntza bera hitz egiten dugu eta haiek, ni bezala, oraindik paperik gabe daude ahal bezala bizi-

tzen. Elkarri laguntzen diogu. Talde batean gaudela sentitzen dugu eta ez lehen bezala, bakoitza bere kabuz. Mikelek eta Johanez, futbolaz asko jakiteaz gain, gure artean ongi moldatzen laguntzen digute.

Arrazakeria asko dago hemen?

Mundu osoan dago arrazakeria, Marokon ere bada. Jende on eta gaiztoa toki guztietan dago. Polizian ere izaten dira jokabide arrazistak. Gauean mutilen bandak elkartzen direnean Polizia beti guregana etortzen da paperak eskatzera, marokoarregana, ezer ez egin arren. Mutil marokoar bat ikusten dutenean ematen du lehertzeaz dagoen bonba bat ikusten dutela. Baina ulertu behar dugu haiek haien lana egiten dutela eta argi dagoela badirela Marokoko mutil batzuk gauza txarrak egiten dituztenak. Nik ez dut inoiz arrazorik izan. Ez naiz arazotan sartu eta ez naute komisariara eraman. Hemen,

“

Paris 365ean laguntza izugarria eman zidaten eta horregatik nik ez dut inoiz ahaztuko zer egiten duten ni bezalako etorkinekin”

oro har, arrazakeria asko ez dagoela iruditzen zait. Jendeak ez nau gaizki begiratzen.

Musulmana zara?

Bai. Egiatzko erlijioa da. Hala ere oso zaila da: ezin duzu alkoholik hartu ez erre, ezin zara diskoteketara joan, ezin duzu sexu harremanik izan ezkondu baino lehen... baina hori dena betetzen ez baduzu gaizki moldatzen zara Jainkoarekin eta hori oso txarra da.

Otoitz egiten duzu egunean bost aldiz?

Bai, Mekara begira. Koraneko esaldi batzuk irakurtzen ditugu. Badira 114 esaldi errezatzeke. Horiek buruz dakizkigu eta errepikatzen ditugu. Ramadana ere zorrozki jarraitzen dut, oso garrantzitsua delako.

Alde handia dago hemengo egoerarekin. Emakume musulmanek, adibidez, ez dute alkoholik edaten, ez dute erretzen, estalita joaten dira, ez dira festaz atera-

tzen... eta hemengo emakumeek edaten eta erratzen dute, ateratzen dira...

Eta hori gaizki iruditzen zaizu?

Nik errespetatzen dut dena. Ez dut ezer esaten, baina ongi iruditzen zait emakumeak etxean egotea.

Baina agian haiek ere atera nahi dute...

Bai, eta ateratzen dira, baina ez diskoteketara alkohola edateko. Ateratzen dira ama, ahizpa edo lagunekin kafea hartzera. Ezkontzara ere joaten dira oso dotore jantzita.

Baina mutilak bai ateratzen zaretela.

Bai, baina erre edo edan gabe. Nire erlijioa oso-oso zaila da. Hala ere, kontent nago.

Sakrifizio horrek merezi du?

Nire erlijioan ezin dira gauza batzuk egin Jaungoikoarekin harreman ona izan nahi baduzu. Bestela gero, hil ondoren, zer esan behar diozu Jaungoikoari? “Ni han nengoela festaz festa, edaten, eta orain eman behar didazu paradisuari sartzeko aukera?”. Horrek ez du balio. ●

Apirilekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Zerga paradisuak EBn



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Jakina da Europako Batasuneko (EB) estatu kideen artean zerga erregimen desberdinak daudena. Horrek eragina du zerga egitura eta motari dagokienean. Sozietateen gaineko zergaren kasuan ere zergak oso bestelakoak dira herrialde batetik bestera, eta arlo horretan Herbehereak, Irlanda, Malta, Zipre eta Luxenburgo paradisu fiskalen kategorian koka ditzakegu, zalantzarik gabe. Zerga kontuetan Europako Batasunak duen ahultasunaren ebidentzia da arrakala hori, eta gaur egun EBren kohesiorako ahulgune nagusienetarikoa da. Egun, Europako ongizate estatuaren ifrentzia da enpresen zerga sarrerak gero eta apalagoak izatea. Norabide horretan eragiten du estatuen arteko beheranzko lehia fiskalak, eta horrek ekarri du Europako Batzordeak kezka azalera-tzea eta nolabaiteko harmonizazioaren beharra aldarrikatzea.

Hari horri jarraituz, oso entzutetsua izan da Espainiako Estatuako enpresa ikur batek, Ferrovialek, egoitza Herbeheretara aldatzeko erabakia. Emandako arrazoi nagusia –estatuako segurtasun juridiko eza– sinestezina da eta bistan geratu da zerga beherapena izan dela mugimenduaren zio behinena. Estatu erregimenean hazitako elite batek gidatzen du enpresa hori, eta estatu horren onuradun historikoa izanik, zalaparta handia sortu du erabakiak. Erpin ugari duen egoitza aldaketa horrek Europako

Europako kohesio ekonomiko eta sozialaren bidean, oztopo larria da zergagintzan batasunerako urratsak hartu ez izana

estatuaren nolabaiteko ongizate erregimenearen iraunkortasuna bera auzitan ipintzen du. Izan ere, munduko ekonomian enpresa transnazionalen botere ahalmenak estatu gehienena gailentzen du.

Ferrovial enpresak zerga arloan Europako Batasunak duen ahulezia probesten du. Europako kohesio ekonomiko eta sozialaren bidean, oztopo larria da zergagintzan batasunerako urratsak hartu ez izana. Hutsune horretatik etekina ateratzen dute hasieran aipatutako herrialdeek. Herrialde horiek zergapetze apalaren ereduari jarraituta enpresak erakarri ohi dituzte, eta zerga bilketa eta enplegua handitzen dute, beren estatu bazkideak kaltetuta. Oxfam erakundeak egindako estimazio batek dio Herbeheretako zerga sistemak munduko gainerako estatuei urteko 22.000 milioi euroko zuloa sorrarazten diela. Enpresa transnazionalek zerga paradisuetara desbi-

deratutako etekinen ondorioz gutxienez 4.000 milioi euro galarazi zizkieten Espainiako Estatuari 2019an eta Frantziako Estatuari 4,6 mila milioi euro urte berean (Frantziako Senatuaren azterketa batek 30-36 mila milioi eurora igo zuen galera hori 2022 urterako).

Ildo berean, AEBetako erraldoiek (Apple, Google, Intel, Meta eta Pfizer) Europako egoitza Irlandan ezarri dute zerga zama gutxitze aldera. Irlandak bere ekonomiaren tamaina bikoiztu du 2014. urtetik *dumping* fiskala erabilita, artean, aldiz, EB guztiaren BPG %23 hazi da, Eurostaten datuek diotenez.

Dumping fiskalaren eta zerga ihesaren errealitatea hain da jasanezina, ezen finantza batzorde buruak berak, Paolo Gentilonik, duela bi urte iragarri baitzuen plan bat martxan jarriko zutela EBn sozietateen gaineko zerga komuna ezartzeko. Bistan da oraindik orain ez dela halakorik egin.

Zerga harmonizaziorik ez bada estatuen arteko *dumping* fiskalak bere horretan jarraituko du, enpresa handi eta transnazionalen onurarako eta lurralde zein gizarte kohesioaren kalterako. Eurogunean txanpon bakarra izatea, zerga sistema bateratua izan gabe, logika ekonomikoaren kontra doa, hala efizientziaren nola bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegitik. Eta horrek ongizatearen eta gizarte kohesioaren amaiera ekar lezake. ●

Zertarako beharko lukete herriek independentzia?



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Berriz ere, euskararen aferak hartu ditu azkenaldian lerroburuetako batzuk. Epaitegi batek euskararen eskakizuna zuen lanpostu baten baldintzen kontra deliberatu duela. Inkesta soziolinguistiko batek esanguratsuak diren datuak eman omen dituela. Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoako euskalgintza manifestaldi handi bat egitekoa dela hurrengo hilean, edo iragan astean euskarazko hezkuntzaren aldeko mobilizazio handia burutu dela, euskara eta euskaraz benetan ikasi ahal izateko eskubidearen alde.

Zaharrak berri.

Zaharra, euskararen kontrako erasoa, gutxiespena, lotsagabekeria. Hainbestearino, non kosta egiten den albiste izan dakigukeela sinistea ere, oraindik harritu eta asaldatu egiten garena ikustea ere.

Eta zaharrak ere datuak. Badakigu eta euskaldunen kopurua handiagoa dela orain, baina horrek ez duela erabileraren pareko gorakadarik ekarri; edo gazteen artean dagoela euskaldun kopururik handiena, irakaskuntzaren efektuz, nahiz eta jakin badakigun horrek ez dakarrela hizkuntzaren berezko atxikimendurik, azken artikuluan ere ohartarazi nuenez. Euskara sustatzearekiko jarrerari aurkakotasun talarik altuena kolektibo horretan aur-

kitzen delako berria, hori bai, benetan berria. Kasu.

Kexu gara, normala denez. "Aspertuta gaude beti gure hautua azaldu, justifikatu eta defenditu beharraz: euskaraz bizi nahi dugu normaltasunez, naturaltasunez eta lasaitasunez", Doinuele egitasmo sortu berriko kidearen hitzak.

Eta politika eskatzen dugu. "Euskarak dituen traben aitzinean, hizkuntza politika eraginkor baten aldarria egingo dugu", zeren eta "egiazko hizkuntza politika publiko bat balitz..." -Baionan egingo den manifestaldia iragartzeko prentsaurrekoan aditutako hitzak-, oso bestelakoa litzatekeen dena, noski.

Ohartzen gara, bai, "euskararen normalizazioan aurrera egiteko dauden oinarri juridikoak ahulak eta ez nahikoak" direla, eta "hankaz gora bota" behar ditugula -ikasleen martxoko mobilizazioen kari esandakoak-.

Baina ez dugu muina jotzen.

Izan ere, baldin badakigu gure egoera soziolinguistikoa euskaldunon mende-kotasun politikoaren sintoma eta ondorioa dela, eta egoera horretan ezinezkoa dela benetan euskaraz normaltasunez bizitzea edo egoera irauliko lukeen euskararen aldeko benetako hizkuntza-politika egitea, zergatik ez da hori aipatu ere egiten? Larriagoa dena, zergatik egin

dugu apustu hori hala dela oinarrian hartzen ez duen estrategia politiko baten alde?

Galdera zintzoak: benetan uste duzue euskararen etorkizuna Espainiak eta Frantziak gure alde egingo dutenaren arabera dela? Benetan espero dituzue taktika egokia, estatu horiek berena ez den eta maite ez duten hizkuntza baten alde egin dezaten saiatzea? Benetan uste duzue (gure) administrazio autonomiko-departamental kolonialen egitura, gure aldeko babes juridiko eta politikoa direla? Orduan, zertan ari gara?

Ez ikusiarena egingo diogu, zaila irudituko zaigu, baina asimilazio-makinarriaren efektu ikaragarria etengo badugu, ezinbestean behar du herriak independentzia. Munduko herri guztiek bezala, bestalde, ez gara ezberdinak. Herri batak posible balu independentziarik gabe bere idiosinkrasia mantentzea, zergatik eta zertarako nahi eta beharko zuketen orduan estatuek independentzia?

Ez dudanez ulertzen nola egon daitekeen euskaldunon arazoei buruzko elkarrizketarik, dioxosozko hitza aipatzen ez duenik, behar bestetan ekarriko dut nik hona. Zin. Tematuta nagoela esango duzue. Bada, bai, eta oso oso oso kezkatuta. ●

Ahantzurak hilko gaitu?



**NEKANE
TXAPARTEGI**
KAZETARI
FEMINISTA

Martxoaren gogoeta, oroitzapen eta minen hilabetea bilakatu da niregan 1999az geroztik. Denboran iltzatuak gelditu baitira guda zikina, tortura, espetxea eta inpunitatea. Urteetan errepresio motak gehitzen joan dira, galderak ere bai. Erantzunak eta egiak, ordea, estatu espainoleko mazmorretan ezkutatuta.

Aurtengo martxoan jazotako gertaera batzuek bultzatu naute estatu biolentzia nola erabiltzen den eta irauten duen hausnartzera. Alegia, gatazka, testuinguru eta garai ezberdinetan ere, zapalkuntza-botere-jabetza sisteman, gizatalde, komunitate edo herri baten aurka nola erabiltzen duten agintari eta gobernu ezberdinek estatu indarkeria, estrategia eta suntsitze politiko gisa.

Emakumeok eta emakume gisa irakurritakoek mendeetan jasan dugu hiltzera kondenatu gaituen bortizkeria estrukturala. Egun kontziente gara dominazio patriarkal hori arrazista ere badela, eta Euskal Herriko espetxeetan eta inposatutako mugetan ere migranteak hiltzen dituela. Eta euskal gatazkan ere, egun hiltzen jarraitzen duela. Ez espetxeetan, baizik deportazioan eta ihesean baka-rrik. Desagerpenez ari naiz. Heriotza sozial eta politikoaz.

Izan ere, askotan heriotza fisikoaren aurretik etortzen da. Ikusezintasuna, balioespen eza, patriarkatua, arrazakeria...

Egiturazko indarkeria garatzeko, aurretik lantzen da terrenoa. Eraildako pertsona horiek desagerraraziz, gizatasuna kenduz edo kriminalizatuz, beraien kontrako indarkeria guztia justifikatzeko, legitimatzeko. Nola ulertu, bestela, itsasoan eta mugetan hildako pertsona beltzekiko jarrera? Emakumeen* erailketa matxistak? Euskal Herrian tortura sistematikoa argitzeko eta aitortzeko beharrik ere ez egotea? Edo estatuaren guda zikinak eragindako erailketen erdiak ere ez jakitea nork gauzatu dituen? Honi heriotza politikoa deituko nioke: mendeakua, egia ezkutatzea, eta balio politiko guztiak kentzea, eraildakoak munstro bilakatu eta ahantzurara kondenatuta. Biolentziaren monopolioaren jabe, eraildakoak biolento egiten eta biolentoak demokratizatzen.

Beraz, ezinbestekoa deritzot erresistentziazko oroitzeari. Mina antolatzeari, mugimendu feministatik egin bezala erailketak izendatu, zenbatu eta salaketa agenda politikoan jartzeari. Herri gisa egia eta ondoren datorkien aitortza borrokatzeko. Beraien izenak eta izanak erreibindikatu. Oroimenak lekua izan dezan, gure bihotz eta memorietan ez ezik, Euskal Herriaren oroimen kolektiboan ere! Hurrengo belaunaldiak gure herriaren egia jakin dezaten! Bestela, ahantzurak hilko gaitu guztiz. ●

Egitura sendoak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Arkitektura eta poesia uztartu zituen Joan Margaritek. Zenbaitzuek bi diziplinen arteko loturaz galdetzen zioten, bi jardun horiek bateratzea ezohikoa zelakoan. Halakoetan, bi alorrek antzekotasun handiak zituztela erantzuten zuen berak; izan ere, Margariten ustez, egitura sendoak eraikitzea izan behar du helburu arkitektoak nahiz poetak, eremu bakoitzaren lehengaiak eta teknikak gorabehera.

Egitura sendoak eraiki zituen egile katalanak artearen bidez; heldulekuak. Euskarri horietan, berak maiz aipatzen zuen moduan, kontsolamendua bilatzen zuen. Eta ez da sobera harrizkoa hala

aritu izana: pasarte latzak izan zituen bizitzan, eta, besteak beste, bi alabaren heriotza jasan behar izan zuen. Eraikin askoren arkitektoak aterperik ezaren gordinkeria ere ezagutu zuen.

Etxean ditudan Margariten lanak berri hartu ditut azken aldian. Horietan, bere bibliografian garatu zuen joera batez ohartu berri naiz: une jakin batetik aurrera hasi zela hitzatzeko idazten liburuetan. Nonbait, urteak pasatu ahala, epilogoetara jo zuen deliberatuki: liburua idatzita, gogoetaren bidez, prosazko elkarrizketa proposatzen zion irakurleari. Eskribitutako eraikina sendotzeko asmoz. ●

Eskola irauli



HIRUKI LARROXA

Hezkuntza aurkezten dugu jendarte eraldaketarako ezinbesteko moduan. Etorkizuneko jendarte eraikiko duten haur eta gazteek (oraina eta etorkizuna eraldatzea helduon esku egongo ez balitz bezala...) pentsamendu, jarrera eta ekintza zapaltzaileetatik urrunduta eta harreman parekideak eraikitzeko modua da. Eta horrela da, bai, jendarte injustu hau iraultzeko, ezinbestean hezkuntzan eragin behar dugu. Nahiz eta jakin hezkuntza zerbait zabalagoa dela, hezkuntza entzuten dugunean gehienoi eskola datorkigu burura. Horri nahi diogu heldu: eskolan zer oinarri dago dominazioaren kulturatik aldentzeko?

Eskola dominazioaren kulturaren birsortzaile gisa aurkeztu dezakegu, jendarte zisheteropatriarkal-kapitalista-kolonialistarako diziplinamendu dispositibo gisa. Baina, bestalde, hezkuntza eraldaketarako ere gako izan daiteke. Gaia da ea horrela izaten ari den edo ez.

Eraldaketarako izan behar bada, bertan ematen diren harremanei erreparatu behar diegu. Izan ere, edukien

Eskolako botere harreman guztien kontzientzia hartu behar dugu, dominazioaren kultura nora arte sartuta dagoen aztertu

transmisioa modu hierarkikoan eta norabide bakarrean egin daiteke, baina balioak harremanekin transmititzen dira, bi norabidetako dinamikan eta adibide izanda. Beraz, eskolan ematen diren botere harremanetan fokua jarri behar dugu. Ez soilik ikasleen artekoetan. Hain zuzen ere, soilik ikasleen arteko harremanak problematizatzea da arazoa, eta hori askotan egiten da. Badirudi irakasle-irakasle, irakasle-ikasle, zuzendaritza-irakasle, irakasle-gai-nontzeko profesional... harremanean ez dela botere harreman asimetriarik. Oker gailtza horrela pentsatzen badugu.

Gure lanean ikusten dugu, ikasleen arteko harremanak zapaltzaileak direnean, askotan eskolako helduen arteko harremanetan dominazioaren logika indartsu erreproduzitzen dela. Horren ondorioak ere ikusten ditugu; jada eraldaketarako grina galdu duten irakasleak, indibidualismoa, komunitate senik eza... dominazioaren kulturaren ondorio den dominatuaren paralisia eta etsipena.

Horregatik, eskolako botere harreman guztien kontzientzia hartu behar dugu, dominazioaren kultura nora arte sartuta dagoen aztertu. Hori egiten ez bada, alferrikakoak dira balioen laneketak (zer esanik ez kanpo eragileon taile-rrak). Balio parekide/feministak zeharka landu behar direla aipatzen dugu beti, baina horretarako aurretik egin beharrekoa zera da: hezkuntza sistema, eskola bera eta bertan dauden pertsona guztiak dominazioaren kulturagatik nola zeharkatuak gauden aztertzea eta hori eraldatzea. Alegia, norberak daukan posizio eta botereaz jabetu eta eraldaketarako agente bihurtzea. ●



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

Udaberria hemen da!



Sasoiko landareak eta zure txoko kutunenak kolorez betetzeko beharrezko guztia Endanean daukazu.

Online denda



Samien eta maputxeen borroka, Statkraften parke eolikoaren aurka

Norvegiako berriztagarrien erraldoiaren hainbat proiektuk ondoeza eragin dute maputxe eta sami herriengan. Epaileek ere ilegaltzat jo dituzte azpiegiturak, baina gobernuek ez ikusiarena egiten dute. Giza eskubideen aldeko aktibista ospetsuek ere bat egin dute protestarekin, Greta Thunberg tartean.

 KARLOS ZURUTUZA  NATUR OG UNGDOM





Parke eolikoa samien lurraldean.

1 51 turbina dira, 130 kilometro baino gehiagoko konexio eta linea elektrikoek saretuta samien Fosen penintsulan, Norvegiako iparrean. Justiziak dio ez luketela hor egon behar, eta hala diote ere lur horien zaintzaile eta jabe izandakoek.

Baina ez da ameskeria hutsa.

“Parke eolikoak neguko bazka-larreak zeharkatzen ditu eta egun ezin dira erabili: elur-oreinak ez dira, inondik ere turbinetara hurbilduko. Guretzat funtsezkoa den antzinako migrazio-ibilbidea suntsitu dute”, diosku Maria Puenchir-ek. 31 urteko giza eskubideen aktibista hau aski ezaguna da Norvegian. “Queer, sami eta minusbaliatu” gisa aurkeztu ohi du bere burua, eta Norvegiako parlamentuan hitzegiteko gonbita jaso izan du.

Lapoi edo saami izenez ere ezagunak dira samiak eta Sapmi deitzen diote

bere lurraldeari. Mugak ezagutzen ez dituen herria dira. 100.000 lagun baino gutxiago bizi dira gaur egun Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiako iparraldean banatuta. Puenchirrek, hain zuzen, Trondheim bere jaioterri-tik hitz egin du ARGIArekin. Bere etxea Fosen penintsulatik oso gertu dago; dioenez, pentsatze hutsak “mina eta haserre bizia” sorrarazten dizkio.

Lau parke eolikok osatzen dute Fosen Vind eremua: Europako konplexu eolikorik handienetako bat. 1.057 MW sortzeko gaitasuna du, 170.000 etxeri energia emateko adina. 2016an hasi ziren eraikitzen. Bertan behera uzteko makina bat dei egin ziren, Nazio Batuen barne, baina alferrikakoak izan ziren denak. Jakina zen bertakoen bizimoduan sortuko zuen kaltea. Lehen turbina ezarri eta bost

urtera, 2021eko urrian, zera ebatzi zuten Norvegiako Gorte Gorenaren hamaika epaileek: azpiegitura legez kanpokoa zen, elur-oreinen kultura garatzeko eskubideak urratzen baitzituen. Arrantzaz eta nekazaritzaz gain, elur-oreinen artzaintza samien etxe askoren sostengu ekonomikoa da. Norvegian, samien komunitatea da elur-oreinak jabetzan izateko eskubidea duten bakarrak, bere kulturarekin duen lotura estuagatik.

“Gorenaren epaia gardena izan arren, ez zuen argitu zer egin behar zen turbinekin. Ez dituzte desmuntatu, eta gainera martxan jarraitzen dute egun ere”, damu da Puenchir.

Iragan urtarilaren 30ean, Amnistia Internazionalak kanpaina abiatu zuen ebazpen judiziala errespetatu eta “giza eskubideen urraketa etengabea”



Norvegiako Finantza Ministerioaren egoitza aurrean protesta, tartean Greta Thunberg.

konpon dezaten eskatzeko. Aurtengo otsailaren 23an, isiltasun administratiboari erantzunez, sami gazte talde batek Norvegiako Estatuari pultsua ematea erabaki zuen: Petrolio Ministerioaren bulegoak lau egunez okupatu ondoren –Poliziak kaleratu zituen arte–, beste ministerio batzuk blokeatzea lortu zuten. Martxoaren 3an, Errege Jauregiaren aurrean amaitu zuten protesta eserialdi jendetsu batekin. Borrokak, alabaina, aurrera darrai.

“Instagram bidez sortutako ekimena izan zen hura”, gogoratu du Puenchirrek. “Norvegiako Gorte Gorenak epaia eman zuenetik egunak zenbatzen hasi ziren gazteak. Zenbaketa 500era iritsi zenean, gobernuak inongo mugimendurik ez zuela egin ikusita, kalera irten ziren”.

Puenchirrek ez zuen bitan pentsatu haiekin bat egiteko, ezta Greta Thunberg-ek ere. Aktibista ospetsuak Osloko erdigunetik, protesta betean, hitz egin zuen ARGIArekin: “Zergatik bertaratu naizen? Mundu osoan zehar indigenen lurren arpilatze eta ustiatzearen lekukoak gara denok. Horren kontrako erresistentzia, baina, indartsua ere badela ikus dezakegu”, zioen suediar gazteak telefonoz. “Horrelako borrokei babesa emateko aukera duen orok hala egin beharko luke, nik behintzat hala ikusten dut”, azpimarratu zuen Thunberg-ek, eta “Sapmiren kolonizazioaren amaiera” ere eskatu zuen.

Martxoaren 2an, samiek Norvegiako Gobernuaren barkamena entzuteko parada izan zuten. Orduan, Petrolio eta Energia ministro Terje Aasland eta Samien Parlamentuko presidente

Silje Karine Muotka elkartu ziren. “Samiek denbora luzea eman dute egoera zail eta zalantzarri batean, eta benetan sentitzen dut haiengatik”, zioen Aaslandek. Baina ministroak ez zuen inolako konponbide zehatzik aurreratu. Samien parlamentua 1990eko hamarkadan sortu zen eta Norvegia, Suedia eta Finlandiako ordezkari komunitarioak biltzen ditu. 2021eko urtarrilean ebatzi zuen edozein instalazio eoliko tokiko sami komunitateek eta horien hautetsiek onartu beharko dutela eta hala ez bada, bertan behera utzi beharko lirakekeela.

Momentuz, Oslok dio energia eolikoaren proiektua eta elur-oreinen artzaintza bateratu daitezkeela. Egia ala ez, erabaki irmoa falta da azpiegitura polemikoaren etorkizuna argitu ahal izateko.



Osloko Errege Jauregiaren aurrean eserialdi jendetsua.

ARTIKOTIK WALLMAPURAINO

Energiaren Nazioarteko Agentziaren datuen arabera, energia berriztagarrietatik dator Norvegiako hornidura elektrikoaren %98. Fosen guneko sei etxalde eolikoek, hain juxtu, herrialde osoan eraikitako parke eolikoek multzoak baino energia gehiago sortzen dute.

Suitzar eta alemaniar inbertsioa duen arren, Fosengo proiektuaren kapitalaren %52 Statkraft norvegiar konpainiak paratu du mahai gainean. ARGIAk e-postaz helarazitako galderari erantzunda, Statkraftek azpimarratu du Auzitegi Gorenaren epaiak ez duela esan nahi parke eolikoek lizentziak iraungi direnik, ezta zer egin beharko litzatekeen turbinekin zehaztu ere.

Enpresaren aburuz, Fosengo parke eolikoaren operazioa “elur-oreinen artzantzari kalte konponezinik egin gabe mantendu daiteke”. Horretarako, sami herriaren eskubideak “urratzen ez dituen lizentzia berri baterako beharrezkoak diren neurriak argitu behar dira”. Azkenik, enpresak bere kezka azpimarratu nahi du, bai eta “gogotik” ari dela lanean sami herriak bere kultura “nazioarteko zuzenbideak bermatu legez garatzeko aukera izan dezan”.

Bere webgunean, Statkraftek Europako energia berriztagarrien ekoizle handiena dela dio, bai eta “energiaren merkatuan aritzen den mundu mailako konpainia”. 21 herrialdeetan 5.300 langile dauzkatala diote.

Norvegiako energiaren erraldoiaren aurkako salaketak eta epaiak beste kontinente batzuetatik ere iristen ari dira. Otsailaren 23an, samiak Osloko erdigunean protestan ari zirela, Txileko

Poliziak indarkeriaz zapuztu zuen Statkraften kontrako beste protesta bat. Manifestariak Los Lagos zentral elektrikoaren proiektua zeukaten begi puntuan, Pilmaiken ibaiaren ertzean.

“Garrantzi handiko lekua da maputxe herriarentzat. Zeremonia konplexu bat egiten da bertan eta hilerri bat dago, eta, antzinako sinesmenen arabera, Pilmaiken ibaitik bidaiatzen dute arimek hil ondoren, izpirituek beren zikloari eutsi diezaioten”, azaldu zion ARGIAri, bideokonferentzia bidez, Fennix Delgadok. 35 urteko eraikuntzako langilea Pilmaikengo laguntza-saretik ari da borrokan. Statkraftek ibai berean dituen hiru proiektuetatik bat geldiaraztea lortu dute dagoeneko.

2021ean, Txileko Auzitegi Gorenak herri-galdeketa egitea ezinbestekoa zela epaitu zuen. Urtebete geroago, instituzio horrek onartu zuen Statkraften kontra altxa ziren komunitate indigenak babesteko eskaera bat.

Delgadok dioenez, Statkraftek ez du inoiz elkarrizketa bultzatu. “Bertako hiru komunitate txikiri ordainsari bana eman diete. Bertakoen oniritzia dutela ulertarazi nahi dute, baina egia historikoa nahiz juridikoa gure alde daude”, berretsi zuen ekintzaileak.

KOLONIALISMO BERDEA

Norvegian gertatzen ari denaren berri zuzena dute maputxeek, baita alderantziz ere.

“Txilen eta Norvegian antzinako lurralde indigenen lapurreta gure begi aurrean gertatzen ari da, bertako komunitateen baimenik gabe beti, eta euren errealitate kulturalak alde batera utziz”.

Eva Maria Fjellheim-en hitzak dira, Sami Kontseiluko lantaldeko kidea, herri honen gizarte zibilaren erakunde handiena. ARGIArekin mintzatu da, telefonoz eta Tromsotik, Norvegia iparreko muturretik. Elkarrizketari eutsi aurretik, 38 urteko emakume sami honek zerbait garbi utzi nahi du: “Sami Kontseiluak klima krisiari aurre egiteko ahaleginak babesten baditu ere, horiek guztiak ezin dira ezarri herri oinarritzko eskubideen kontura”.

Kontseilurako egiten duen jardunaz gain, Fjellheim Norvegiako Artikoko Unibertsitatean doktoregoa egiteko ikertzen ari da. “Kolonialismo berdea eta samiek beren artzaintza-lurretan energia eolikoak garatzeko erresistentzia” du abiapuntua eta jomuga.

Dioenez, herri indigenen antzinako ezagutzak eta praktikak konponbidearen zatizat har litezke, eta ez oztopatzen. Azken hau, kexu da Fjellheim, dugu ohikoena. Antza, mehatxua geroz eta handiagoa da bere herrikideentzat. Norvegian ez ezik, Suedian, Finlandian eta Errusian antzeko proiektu eolikoak sustatzen ari dira, samien lurralde osoan barrena.

“Eskubideen errespetuari eta jasangarritasunari dagokionez, herrialde eskandinaviarrek lider gisa agertu nahi dute, irudi hori defendatu ohi dute. Fosen proiektuaren kontrako Auzitegi Gorenaren azken epaiak, alabaina, kontrako esaten digu”, dio Fjellheim-ek, fokua ireki aurretik: “Askoren ustez, giza eskubideen urraketak beste eskualde batzuetan baino ez dira gertatzen, eta ez Norvegia bezalako ongizate-estatu demokratiko batean”.



Statkraftek egiteko asmo duen zentral eolikoaren aurkako manifestazioa Azpetian, apirilaren 18an.

AITZIBER ARZALLUS / UZTABARRIA

Euskal Herrira ere eztabaida ekarri du Statkraftek

 AXIER LOPEZ

Multinazional norvegiarrak Euskal Herrian bi parke eoliko eraikitzea proposatu zuen iaz. Eusko Jaurlaritza eta udalak prest agertu dira proposamena aztertze-ko. Momentuz bi proiektuak garapen fasean daude. Eman dituzten datuen arabera, 200 metro inguruko 13 haize errota ezarriko lituzkete mendi inguruetan. Bi parketan handiena Itsaraz izeneko da: Aramaio eta Eskoriatza arteko mendietan zortzi errota 60 megawatt sortzeko. Bigarrena, Piaspe izena jarri diote, Errexil, Zestoa eta Azpeitia arteko Sañoa mendian eraiki nahi dute, 33 megawatt sortzeko bost errota erraldoi jarrita. Statkrafteko bi proiektuok harrabotsa eragin dute, berriztagarrien beharra eta naturaren babesa uztartzeko moduen inguruan eztabaida hemen ere bizi-bizirik dagoelako.

Statkrafteko ordezkariak bi bilera publikotan parte hartu dute tokian tokiko udal gobernuek (EH Bildu) antolatuta. Urrian Azpetiko Soreasu antzokian izan ziren eta azaroan Aramaioko kultur

etxean. Bietan aretoa goraino bete zuten herritarrek eta tentsioa oso presente izan zen giroan.

Aramaion, Norvegiako enpresaren ordezkariak azpimarratu zuten egiteko daudela ingurunean eta biodibertsitatean parkeak eragingo lukeen inpaktua neurtzeko ikerketak. Herritarrek mahai-gaineratu zuten samiei eta maputxeei Statkraften proiektuek eragin dieten kaltea, eta hala, Euskal Herrian egingo dituzten ikerketen egiazkotasuna zalantzan jarri zuten. Itsarazek sortuko duen energiaren balioa, kualitatibo zein kuantitatiboa, oraindik ez dakitela ziur aipatu zuten multinazionalako ordezkariak.

Azpeitian bi ordu eta erdiz luzatu zen bilkura eta herritarrek euren kezkek eta desadostasunak agertu zituzten. Txalo zaparradak alde batetik zein bestetik, oihu batzuk ere bai, eta kanpoan protesta. Udal ordezkariak adierazi zuten, parkea legez babesturiko natura-eremuetatik kanpo lagokeen arren, sakon aztertuko dutela

ondareari, ingurumenari edo paisaiari egingo liokeen kaltea. Statkrafteko ordezkariak azpimarratu zuten 205 metroko garaierako haize-errotekin Urola Erdiko energia kontsumoaren %50 aseko luke-tela. Egitasmoa, aurrera aterako balitz, 2026 amaieran edo 2027 hasieran amaituta egongo litzateke. Herritarrek galdera eta kritika asko egin zuten. “Badirudi gu salbatzera etorri zaretela. Eredua berdina da, kanpotik datorren enpresa bat zarete, ikusten duena hemen badagoela toki bat negozioa ateratzeko, eta kito”, kritikatu zuten pertsona batek. “Parke eolikoekin lortzen dugun energia kopuruak merezi du mendiak izorratuta lagatzea?”, gaineratu beste batek. Nazioarteari begira ere jarri ziren: “Ze panorama geratuko da haize-errotak egiteko metalak atera behar dituzten parajetan?”. “Mendian pertsonak bizi gara, agian askoz bozka gehiago gaude hirietan, baina mendian gaudenok janaria egiten dugu eta mendia zaindu”, azaldu zuen baserritar batek.



Meatzariak ere samien lurrei so dira, Europako lur arraro hobi handiena bertan dagoelako

Suedia iparreko Kiruna herrian Europako lur arraro hobi handiena aurkitu berri dute. Alde batetik, trantsizio energetikorako ezinbertzeko baliabidea da eta Txinaren menpekotasuna murrizten lagunduko digu. Bertzaldetik, bertako ekosistemak eta Samien jarduera tradizionalak zuzenean mehatxatzen ditu meatzaritzak, jasangarritasunaren inguruko galderak sortuz: nolako etorkizun “berdea” nahi dugu? Desazkunderako prest ote gara?

 NICOLAS GOÑI

Duela hilabete guti, Europako lur arraro hobi handiena aurkitu dute Suediako iparrean, Kiruna herrian. Herri hori jadanik ezaguna zen munduko burdin meategi handienarengatik. Gaur egun, urtean 27,5 milioi tona burdin mineral ateratzen dira bertatik. Meategiaren zain nagusiak lau kilometroko luzera du, 80 metroko zabalera-ekin, eta horren inguruan ehundaka kilometroko meazuloak eraiki dituzte. Denboran zehar Kirunako burdin meategia hainbeste garatu dela eta, hiriaren oinarriak, literalki, jaten hasi dira, arrokak zulatzearen ondorioz. Horren ondorioz 2004an herria deslokalizatu behar zela erabaki zuten, hortik pixkanaka kilometro batzuetara berreraikitzeko.

Antzeko garapena irudika dezakegu aurkitu berri duten lur arraro hobi honenkin. Bertan aurkitu diren lur arraro mineral nagusiak dira praseodimioak edota neodimio oxidoak –hots, ibilgailu elektrikoan edota haize erroten eraikitzeko behar diren baterien osagaiak–. Hobiaren edukia milioi bat tona dela ebaluatu dute. Zenbakiak handia dirudien arren, kopuru xumea da 120 milioi tonako mundu mailako baliabideekin alderatuz. Halere, Europa mailan hobi handiena da, eta horren jabea den LKAB enpresak bere prentsa agirian berri ona dela dio, ez bakarrik konpainiarentzat edo Suediarentzat, baizik eta Europarentzat eta klimarentzat ere. Klimari dagokionez, bederen, ez da baitezpa-

da hala izanen: historian zehar, energia iturri berriak erabiltzen hastearekin ez da inoiz aurreko iturrien erabilpena utzi, Jean-Baptiste Fressoz tekniken eta ingurunearen historialariak erakutsi bezala. Horren ondorioz, energia berriztagarriei buruzko faltsuzko ilusioak baztertzera deitzen du: berriztagarriek fosilak ordeztu beharrean, litekeena da gehitzea, eta beraz klimaren arazoa konpondu gabe geratzea. Aldiz, Europari dagokionez, meategi berri horrek bali estrategikoa izanen duela ezin uka. Europar Batasuneko merkatu komisario Thierry Bretonek iaz zioen “litioa eta lur arraroak laster petrolioa eta gasa baino garantzitsuagoak” izanen direla.

BI EREDUREN TALKAGUNEA

Meategia hemendik 10-15 urte arte ez dela martxan jarriko irakurri daiteke LKAB enpresaren agirian. Baliabidearen aztertzeaz eta ustiapen plana egiteaz aparte, ingurunean izan daitezkeen kalteak ebaluatu behar dituzte ere, ondotik, kalte horiek saihesteko edo konpentsatzeko neurriak pentsatuz eta martxan ezartzeko gisan. Hala ere, agiri berean Suediako autoritateei dei egiten die prozesua azkartu dezaten, baliabide horren garrantzia kontuan harturik. Oroitarazgarria da 2022ko hauteskundeen ondorioz Suediako gobernuak ez duela gehi-ago ingurune ministeritzarik.

Klima argudiotzat hartzea ingurunea bigarren planora bultzatzen saiatzeko,

datozen hamarkadetako joera indartsua izan daiteke Fressozen ustez. Hain zuzen, Kirunako meatzeak ez dio hiriari bakarrik kalte egiten, inguruko ekosistemei ere eta bertan bizi diren Samien jarduera tradizionalari –batez ere elur-oreinaren abeltzaintza transhumanteari–. Suediako Sami Konfederazioak eta Gabna Sameby herriko elur-orein hazleen elkarteak salatu dutenez, Suedia lotsagabe dabil materia “berdeen” ehizan, eta Sami herria ikusezina bihurtzen du. Meategi horrek alhabide gune tradizionalak erdititzen ditu, bien arteko pasagune estuan kokatua baita, eta estuago bihurtuko da meategia gehiago zabaltzen bada eta garraiobide berriak gehitzen bazaizkio. XX. mendean zehar garapen industri- al Samien lurra jan zituen, alhabide eta transhumantzia bide batzuk uztera behartuz. Karin Kvarfordt Niia Gabna Sameby herriko bozeramaileak dio alhabideez aparte aintzirek ere meategiaren kalteak pairatu dituztela, eta bertako arrainak ezin direla gehiago arrantzatu. Lur arraroei dagokienez, lurpetik atera baino materiala lortzeko bertzelako moduak ikertu beharra azpimarratzen du, hala nola Kirunan 130 urtez pilatu diren burdin mineralaren zaborra birprozesatzea. Bere hitzetan, “zer da berdea? Zerk geldituko du klima aldaketa? Lurpetik burdin eta lur arraro gehiago ateratzeak edo lur gehiago ez kutsatzeko ekosistema gehiago ez kaltetzea xedetzat hartzeak?”. Greta Thunberg klimaren



BURDINA

Kiruna herria eta bere burdin meategia. 1899an irekia, gaur egun munduko burdin meategi handiena da, urtean 27,5 milioi tona ekoitziz.

LENNART DUREHED

aldeko militanteak ere argi du: erregai fosilen ustiapen neurrigabea uzteak ez du erran nahi berriztagarriak neurrigabe ustiatzen hastea. Mezu hori zabaltzeko joan zen Samiekiko elkartasunez

DEPENDENTZIA BATETIK ASKATU, ZEIN PREZIOZ?

Txinan dagoen Bayan Obo meategian aurkitzen da munduan ustiatzen den lur arraro baliabidearen %60a, eta Txina nagusi da ere mineral horien ustiapenean, oraingoz egoera ia monopolikoan egonik. Adibide esanguratsua da 2021ean Europar Batasunean erabili ziren lur arraroen %98 Txinatik inportatu zirela. Aldaketa beharrezkoa dela dio Ebba Busch Suediako energia ministroak, Europa bertze herrialdeei –

eta batez ere Txinari – dependentezia delako materia horiei dagokienez. Mineral horiez gain, ongarriek dagokienez Kirunako hobi berriak argudio bat gehitzen du: lur arraroekin batera, Europak behar duen fosforoaren laurdena dauka, ebaluatu dutenez. Kanpoko herrien menpekotasunetik atera beharraz gordinki ohartu zen Europa iaz, luzaz oinarritzko baliabideak hornitzen zizkioten industria kutsatzaileak bere mugetatik urrun zeudela: lur arraroak, erregai fosilak, ongarriak, gurean baino ingurune arau askoz lausoagoak dituzten herritatik prezio merkean inportatzen genituen. Bayan Obo meategia dagoen Baotou hirian, Mongoliarekiko mugan, normala baino 32 bider handiagoa da erradioaktibitate maila (konparaketara-

ko, Txernobylen 14 bider da) eta minbizi asko lur arraroen prozesatzeari lotuak direla susmatzen du Txinako Greenpeace taldeak.

Funtsean, Kirunako meategi berriaren proiektuaren inguruan jasangarritasunaren bi aurpegik talka egiten dute. Meategiaren promotoreen ikuspegitik, dena errazago litzateke Samiek ez balute haien bizimodu tradizionala atxiki nahi, eta horren ordez hobetsiko balute ibilgailu elektrikoaren mundua. Samien ikuspegitik, garapen industrialak mehatxua izaten jarraitzen du, zeharka –klima aldaketaren bidez– edo zuzenean –meatzearen bidez–.

Bietarik jasangarriagoa zein den argi bada ere, gizarte mailan desazkundera onartzeko prest ote gara? ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f w

NAZIOGINTZA ELKARTEA

“ ”

EAJk eta EH Bilduk gero eta gehiago begiratzen dute Madrilera

Nazio-gintza elkarteko kide dira Edurne Alegria, Luken Etxabe eta Josu Albero. Duela bost urte sortu zen elkarte, 30en bat kide ari dira lanean bertan eta kezkatuta daude Euskal Herrian ikusten duten desnazionalizazio prozesuarekin. Urtarrilean bi mintegi egin zituzten Azpeitian eta Urruñan, eta elkartetik haragoko hainbat pertsona bildu zituzten euskal nazioak egun bizi duen egoeraz gogoeta egiteko.

 XABIER LETONA BITERI  DANI BLANCO

Azalduko diguzue zer den Nazio-gintza?

JOSU ALBERO: Independentistak gara eta Euskal Errepublika nahi dugu. Horregatik, uste dugu funtsezkoa dela euskal kontzientzia nazionala zabaltzea, bestela nekez lortuko dugu Euskal Herriak bere burujabetza izatea. Gure helburua Euskal Herriko burujabetza integrala da, hau da, burujabetza politikoa bai, baina baita burujabetza linguistikoa, kulturala eta identitarioa ere. Beti esaten dugu Irlandako eredua ez dela gurea, han estatua lortu zuten, baina nazioa galdu.

Gure estatutuetan lau helburu nagusi agertzen dira: bat, euskal kontzientzia nazionala zabaltzea; bi, euskara eta euskal kulturaren aldeko diskurtsoa txer-

tatzea mundu abertzalean; hiru, Euskal Errepublikaren aldeko pedagogia egitea; eta lau, Europako estaturik gabeko beste nazioekin harremanak egitea eta elkar ezagutza sustatzea.

Sar gaitezen euskal identitatearen gaian. Zer da gaur egun euskaldun izatea? Zer euskal herritarra? “Baskoa” ere irakurri dut zuen idatzi batzuetan...

EDURNE ALEGRIA: Definizio asko egon daitezke, baina guretzat euskalduna da euskaraz hitz egiten duena eta hizkuntza horretan bizitzen saiatzen dena, bere jatorria edo azalaren kolorea dena delakoa izanda ere. Euskal herritarra da bere burua herri honetako kide izateko. Beraz, euskal herritarra bi eratakoa

izan daiteke, euskaraz dakiena eta ez dakiena, azken hau litzateke baskoa. Eta horiez gain, egongo litzateke hemen bizi dena, baina bere burua espainiarizat duena, edo nikaraguarizat, edo beste nonbaitekoa. Duela hamarkada batzuk zera aipatzen zen: “Euskalduna da hemen bizi eta hemen lan egiten duena”. Definizio horrek dagoeneko ez digu bali. Hemen lan egiten duen guardia zibil bat, adibidez, ezin dugu euskalduntzat hartu.

Euskal herritarra, orduan, abertzalea dena da?

J. ALBERO. Ez. Euskal herritarra izateko, herri honetako partaide izateko sentimendua behar da gutxienez. Senti-



Josu Albero, Luken Etxabe eta Edurne Alegria Naziozintza taldeko kideak.

menu eskusiboa edo beste pertenezia-sentimendu batekin partekatua. Eta euskalduna hizkuntzarekin lotzen dugu, euskaraz hitz egiten duena eta euskaraz bizitzen saiatzen dena. Euskararen jakite hutsa ez da nahikoa. Nik ingelesa badakit, baina ez naiz ingelesa.

Zergatik ikusten duzue krisian euskal abertzaletasuna?

J. ALBERO. Abertzale kontzeptua bera krisian dago. Duela ez asko ezker abertzaleko buruzagi bati entzun genion esaten “ni independentista naiz, baina ez naiz abertzalea”. [Arnaldo] Otegik berak gaur egun ezker independentistaz hitz egiten du, ez ezker abertzaleaz. Badago abertzale hitza baztertze joera.

E. ALEGRIA. Ipar Euskal Herrian –han bizi naiz ni– alderantziz da, han abertzale hitza gero eta gehiago entzuten da eta label bat da. Horrekin ez dut esan nahi zigilu horren pean doazen guztiak abertzaleak direnik, hauteskundeetan joaten dira abertzale ez diren ekologistak abertzaleen zerrendan, baina tira, marka horren azpian doaz. Hegoaldean ez da horrela.

LUKEN ETXABE: Abertzaletasuna eta euskal nazioa gero eta abstraktuago bihurtzen ari dira. Euskal Herria, Euskal Estatu eta Euskal Errepublika aipatzen dira, baina zer dira? Gizarte likido honetan, gero eta lausoago geratzen ari dira, eta bada ordua berriz defini ditzagun ongi zer diren. Marko estatalean gero

eta gehiago sartzen ari gara eta, akaso, ahazten ari zaigu nazio zapaldua garena.

J. ALBERO. Guk ez dugu konplexurik abertzaleak garena esateko, baita nazionalistak ere. Gurea menpeko nazioa delako, eta beraz, gure hizkuntza, gure kultura eta gure nortasun kolektiboa mehatxupean daudelako. Jakina, gure nazionalismoak ez du zerikusirik menperatzen gaituzten estatu nazionalismoarekin. Haienak, egiazki, beste izen bat du: inperialismoa. Funtsezkoa da nazionalismoaren eta inperialismoaren arteko bereizketa egitea; Ulises Moulines-ek oso ondo egiten du hori bere *Manifesto nacionalista* bikainean. Kontua da espainiarrek eta frantziarrek hainbestetan errepikatu digutela nazionalis-



moak gaiztoak direla –gurea, jakina, ez haiena–, eta hemengo jende askok sinistu egin duela.

Euskal Herrian 60 urtetako gatazka bortitza bizi izan dugu. Izan daiteke horren ondoren halako desmobilizazio bat gertatu izana?

E. ALEGRIA. Nekea izan daiteke horren eragile bat, bai. Frantziak eta Espainiak sekulako lana egiten dute gu asimilatzeke, eta gu oso erraz ari gara erortzen prozesu horretan.

L. ETXABE. Bai, gatazka horretan batzuk irabazle eta besteak galtzaile atera ziren, baina bozkatzan ditugun alderdi politikoez ere ez dute ahaleginik egiten berpizkunde nazionalaren alde. Hori egin beharrean, gero eta gehiago ari gara Madril eta Parisera begiratzen. Lehen esaten genuen “Euskara da gure lurralde libre bakarra”, baina gaur egun hori ere kolonizatzen ari dira.

Euskal pentsamenduan dauden eragin arrotzak aipatzen dituzue urtarrileko bi jardunaldien berri ematen duzuen zuen webguneko idazkian. Zertaz ari zarete?

J. ALBERO. Gure mintegitik atera zen ondorio bat da. Euskal Herriak une honetan bi erronka handi ditu: bata, gure asimilazio nazionala saihestea, eta bestea, gure burujabetza lortzea. Asimilazioari aurre egiteko euskaratik euskal pentsamendu propioa garatu behar dugu, eta hor badira erreferentzia intelektual garrantzitsuak, esate baterako Txillardegia edo Joxe Azurmendi. Euskal pentsamendu autonomo eta euskaldun horrek hemen go marko erreferentziala du ardatz.

Alderdi abertzaleei kritika egiten diezue Madrilekiko duten jokaeraz. Zein harreman behar da estatuko eragileekin euskal estatuaren bidean?

L. ETXABE. Burujabetasuna, autodeterminazioa, kultura eta hizkuntza, adibidez, lelo sinbolikoak bihurtu dituzte alderdiek. Euskal Errepublika lortzeko prozesu burujabe bat behar da, eta hori abiatu behar da euskalgintzatik eta nazio gintzatik. Alderdi abertzaleei egiten diegun kritika nagusia da euskal nazio abstraktu bati buruz ari direla, ahoa betetzen zaie hitz horiekin, baina gero ez dituzte haien aldeko politikak abiarazten. EAJk eta EH Bilduk gero eta gehiago begiratzen dute Madrilera, eta abertzale guztiok dakigu Madrildik eta Parisetik ezin dela ezer atera burujabetza eta autodeterminazioari dagokienez. Beraz, aldeakartasuna da bide bakarra, ezin baitugu estatuarekin mahai berean maila berean aritu; ikusi da Kataluniarekin eta ikusten ari da Eskoziarekin.

E. ALEGRIA. Eta modu horretan alderdi abertzaleek bi estatuak legitimatzen dituzte. Madrilera eta Parisera joanda, eta han tratuak eginda, estatuak aintzako-tzat hartzen dituzte.

Aldeakartasuna eta, beraz, horrek dakarren konfrontazioa?

L. ETXABE. Konfrontazio demokratikoa ezinbestekoa da. Gizartean ez da konfrontaziorik nahi, baina politika horixe da, ea nork lortzen duen ideiak bereganatzea. Polarizazioaren beldurra aipatzen da, baina deskolonizazio edo burujabetza prozesuetan hori erabat normala da.

Zer politika jarri beharko lituzkete abian alderdi abertzaleek, zuen ustez?

L. ETXABE. Momentuz, eskumenak ditugun eremuetan gehiago eginez. Hemen go funtzionarioen ehuneko oso gutxi da euskalduna, adibidez. Hezkuntzan, A eta B ereduak kendu beharko lirarteke eta D ereduak bultzatu. Espainiako auzitegiak, halaber, euskararen aurkako ebazpen asko ateratzen ari dira, eta halako gauzetan estatuarekiko konfrontazio mailak handiagoa behar du.

J. ALBERO. Ausartago jokatu behar da ikuspuntu nazional batetik, prozesu independentista bat abian jartzeko. Frantziak eta Espainiak inoiz ez ditugue autodeterminazio eskubidea onartuko. Aldeakartasuna da geratzen zaigun bide bakarra, eta formula baketsuak bilatu beharko ditugu hori aurrera eramateko, Katalunian egin duten bezala. Une honetan ez ditugu ikusten alderdiak horretan.

Nola ikusten duzue euskararen egoera?

J. ALBERO. Ez dugu ikusten herri mugimendu politikorik euskara bere diskurtsoaren oinarrian jartzen duenik. Zergatik da hain garrantzitsua guretzat euskara? Identitate indibiduala eta kolektiboa ematen dizkigulako.

E. ALEGRIA. Kezkaz ikusten dugu. Eguneroko bizitzan euskararen erabilera behera doala ikusten dugu, eta inkesta soziolinguistikoek ere hala adierazten dute, batez ere arnaguneetan. Estrategia nazionala falta da euskalgintzan. Aspalditik ari gara esaten instituzioek eta euskalgintzak hizkuntza planifikazio

bat jarri behar dutela abian, baina hori ez da egiten. Horren orde, elebitasuna goraiatu da, eta euskara hizkuntzen merkatuan aukeran jarri da, jakinik gu-reak egoera diglosikoa pairatzen duela. Euskararen ezaugarri kultural eta identitarioak ezabatzeko borondatea egon da eta dago.

Horrez gain, euskararen aktibismoa nabarmen otzandu da erakunde publikoek euskalgintza limurtu dutelako. Jendeak sinetsi egin ditu instituzioetatik jaurti diren "egoera ona da", "aurre-ra egin dugu" eta gisakoak, eta horrek desmobilizazioa dakar. Gure ustez, aktibismoa berpizteko hizkuntzaren aldeko presio taldeak behar ditugu.

Zergatik diozue erakundeek euskalgintza limurtu dutela?

J. ALBERO. Ez dugulako ikusten gertatzen ari direnen aurrean behar besteko erreakziorik. EAEko Auzitegi Nagusiak oraintsu bota ditu atzera Gipuzkoako Diputazioaren profil linguistikoa batzuk, eta bai, euskalgintza kexatu da, baina jarrera otzana hartu du. Horrela amildegira goaz.

Euskararen eremuan "hizkuntz lurraldetasuna" proposatzen duzue. Zer da hori?

J. ALBERO. Euskal Herriko tokirik euskaldunenetan hizkuntz lurraldetasuna ezartzea, Belgikan, Suitzan edo Kanadan egin duten moduan. Horrek zer suposatuko luke? Bertako hizkuntz eskubide kolektiboak gailentzen zaizkiela norbanakoen hizkuntza eskubideei. Baina datozen asteetan modu zehatzagoan luzatuko dugu proposamen hau eta eragile euskaltzaileen ekarpenak ere jaso nahi ditugu.

Euskal Herriko gazte antolatuetako batzuei begira ez dirudi nazio-gintza denik haien kezka garrantzitsuenetakoa. Hor dugu, adibidez, GKS. Nola bizi duzue hori?

L. ETXABE. Ni oso kezkatuta nago horrekin. Gazteok kezka bizi ditugu arazo ekologikoak, sozio-ekonomikoak, feminismoa, baina ez naziotasuna. Faktore askoren ondorio da hori, besteak beste, agenda politiko eta mediatikoa, eta ondorioz, gazteak ez gara ohartzen nazio zapaldua garela; hizkuntza, kultura eta nazioa arriskuan ditugula.

J. ALBERO. Ez dugu ahaztu behar gure mintegian aipatu zena, hau da, gure herria desnazionalizazio prozesu hits eta azkar batean sartuta dagoela. Gero eta espainiarragoak eta frantziarragoak

“”

Euskararen aktibismoa nabarmen otzandu da erakunde publikoek euskalgintza limurtu dutelako
Josu Albero

“”

Euskal herritarra da bere burua herri honetako kideztat duena
Eduarne Alegria

bihurtzen ari gara. Erreakzionatu ezean, bi estatu zapaltzaileek haien xedea lortuko dute: gure erabateko asimilazioa.

Non ikusten duzue desnazionalizazio hori?

J. ALBERO. Eguneroko erreferentzietan. Hegoaldean gehien ikusten den telebista Espainiako Telecinco da...

Baina hori orain dela 20-30 urte ere bai, horrekin edo beste hedabide batzuekin.

L. ETXABE. Ni haurra nintzenean, duela 20 urte, nire ingurukoek gehien ikusten genuen telebista ETB zen. Gaur egun, nire 15 urteko anaiak Telecinco, *La Isla de las tentaciones* eta gisakoak ikusten ditu. Be-launaldi batetik bestera sekulako aldaketa egon da panorama kulturean: zenbat marrazki bizidun daude euskaraz, zenbat telesail, zenbat film?

J. ALBERO. Prozesu horrek bi alde ditu: batetik, gure gizartean bizi dena, denok ikusten dugu gure inguruan zeintzuk diren erreferentzia kultural nagusiak; eta bestetik, desnazionalizazio hori iritsi dela gure alderdi abertzaleen agendara. Duela

20 urte euskara, autodeterminazioa eta lurraldetasuna lehen lerroan zeuden, baina gaur egun ez dituzte aipatzen. Katalunian egunero aipatzen dira.

Katalunia aipatu duzu, lehenago konfrontazio demokratikoa... han gertatutakoa etsigarria izan daiteke?

J. ALBERO. 2017ko urrira arte oso ondo bideratu zuten prozesua, baina gero ez zuten asmatu bururaino eramaten.

E. ALEGRIA. Akuilu ere izan daiteke. Ez dut uste han sua amatatu denik. Politikariek beste bide bat hartu dute, baina ez dut uste herriak jarraitzen dituenik.

L. ETXABE. ERC eta Junts hegemonia borroka baten sartu dira han, hemen EAJ eta EH Bildu bezala, baina independentzia eta Kataluniako Errepublikak lortzea oraindik haien agendan daude, hemen ez bezala.

Euskal gizartean eragiteko, baduzue buruan alderdi politiko gisa egituratzea?

J. ALBERO. Ez, inondik inora. Gu saiatzen gara euskal kontzientzia nazionala zabaltzen, hizkuntzan oinarritutako abertzaletasuna zabaltzen. Kontzientzia linguistikoa handitzen den heinean handituko da ere euskal sentimendu nazionala, eta hori handitu ahala, indartuko da independentziaren aldeko sostengua.

L. ETXABE. Orokorrean bultzatzen ari da abertzale autonomista izatea, ez independentismoa.

Lau hamarkada daramatzagu autonomiekin Hegoaldean.

Lurraldetasunaren ikuspegitik zer ekarri du horrek?

E. ALEGRIA. Ez EAE, ez Nafarroa, ez Iparralde, hemen zazpi lurraldeko Euskal Herria dago eta hori bultzatu behar dugu. Euskal sentimendu nazionala muga mental eta fisikoen gaintik zabaldu beharra dago, eta euro-eskualdearen filosofia muturreraino eraman behar da ekimen zehatzetan. Ezin dugu onartu ikastoletako ikasle eta irakasleek esatea, "bihar Donibane Lohizunera goaz, Frantziara". Eta ezin dugu ahaztu euskara dela lurralde guztiak batzen gaituena.

L. ETXABE. Abraham Lincolnek zera esan zuen: "Esango balidate zuhaitz handi bat mozteko sei ordu ditudala, lehenengo lau orduak emango nituzke aizkora zorrotzen eta beste biak zuhaitza mozten". Aizkora zorrotzea, gure kasuan, nazio-gintza da, eta zuhaitza mozteak litzateke Espainiatik eta Frantziatik banatzea". Ezinezkoa da zuhaitza mozteak aizkora kamutsarekin. ●

ARTIOM TIVDA
UKRAINAKO SINDIKALISTA

“Gerra-egoerako legediak soldatak ez ordaintzeko aukera ematen die enpresariei”



Ukrainako gerra hasi zenetik urtebete pasa den honetan, Ukrainako Artiom Tivda sindikalista elkarrizketatu dugu, gerraren ondorioz herritarrei eguneroko bizitza eta lan-mundua nola eraldatu zaizkien ulertzeko. Lan-gatazka pertsonal batetik abiatuta, Tivdak bere kabuz Lan Zuzenbidea ikastea erabaki zuen, epaitegian bere burua defendatu ahal izateko. Geroztik, borrokak kolektiboki ematearen garrantziaz sinetsita, urteak eman ditu Ukrainako hainbat eskualde eta lan-alorretan sindikatu independenteak sortzen, langileei beren eskubideak defendatzen laguntzeko.

 NATALIA NIKULENKOVA (ITZULPENA: VASILISA PETROVNA)  ARTIOM TIVDA

Nola aldatu da zure bizitza 2022ko otsailaren 24ko inbasioaz geroztik?

Gerra hasi arte Kieven bizi nintzen. Gerra hasi eta gutxira konturatu nintzen leherkari batek etxean jo eta ni hiltzeko arriskua zegoela. Egun haietako batean kide batek deitu eta esan zidan Kievetik alde egingo zuela, autoan leku libre bat zuela eta nire bila pasa zitezkeela. Auto-ilara ezin luzeagoetan ibili ginen;

gugandik kilometro batera leherketak egon ziren, baina, zorionez, gure gidariak esperientzia handia zuen eta beste bide bat aurkitu zuen. Gero jakin nuen auto-ilara horretan zibilen autoak bonbardatu zituztela eta errepide hori hartu nahi zuen jendea hil zutela. Ukrainako mendebaldeko hiri batera joan nintzen bizitzera, hiri hartako sindikatuarekin jarri nintzen harremanetan, eta lanean jarraitu nuen.

Maleta ez nuen epe-luzerako prestakua, iruditzen baitzitzaidan egoera guztia nolabaiteko esajerazioa zela eta Errusiak izua piztea besterik ez zuela nahi. Gainera, Ukrainako agintariek esaten zuten Errusiak behin baino gehiagotan iragarri zuela gerraren hasiera, baina gure ekonomia ezegonkortzeko probokazioak zirela guztiak. Nazioarteko inteligentzia-zerbitzuek etengabe errepi- katzen zuten eraso hurrengo egunean



Artiom Tivda, Zerbitzu Publikoetako Sindikatuen Europako Federazioko mobilizazio batean.

izango zela; gure albistegiak batzuetan horrelaxe baieztatzen zuten, eta bestetan gehiegikeria zela esaten zuten. Inork ezin zuen ziur jakin zer zerabilen Putinek buruan.

Egun, zaila da ezer planifikatzea. Beste hiri batera trenez joatea konplikatu da, hainbat ordutako atzerapenak egoten dira argi-mozketen ondorioz, tropa errusiarrak zentral elektrikoak bonbardatzen ari baitira. Trenak ez dira joaten bonbardatzen ari diren lekura, itzulingurua egiten dute edo alarma bukatu arte itxaron.

Alarmak jotzen duenean babeslekuetara jaisten zarete?

Egia esateko, jada ez beti. Atzo supermerkatuira joan nintzenez alarmak jo zuen, denda itxi eta irtenarazi gintuzten, baina jendea ez zen ondoan dagoen babeslekura joan, 30-40 minutuz erretzen gelditu zen. Misilak noiz eroriko zain gelditu ziren, besterik gabe. Jendea jada ez da hain kontuz ibiltzen, nahiz eta zaila den lasai egotea sirenak jotzen duenean, etxe eta eraikin suntsituen irudiak etortzen zaizkizulako burura. Baliteke zure



Artiom Tivda elkarriketatua sindikatuko kide batzuekin batera, laguntza humanitarioko biltegi batean. Argazkiaren zati batzuk borrotuak daude lokalizazioa ekiditeko.

etxebizitza izatea sutan dagoena.

Nola aldatu den nire bizitza? Hiri lasaiago batera joan nintzen bizitzera eta han egon nintzen martxotik ekainera. Inork ez zuen espero etxebizitzaren prezioak igoko zirenik erdigunetik urrunen zeuden auzoetan ere. Bizi izan nintzen hirian etxebizitzaren prezioak boskoiztu egin ziren, han bizitzea seguruagoa delako.

Duela gutxi bueltatu zara Kievera.

Nola aldatu da hiria?

Ekainean itzuli nintzen. Nire auzoan, etxebizitza-bloke batek goiko bi solairuak suntsituta zituen. Inguruko hamar etxeetako leihoak lehertu egin ziren, eta jendeak nolabait ordezkatu edo ateran batekin estali ditu aire-korronteak. Ia leiho guztiak zinta itsaskorrez estalita zeuden, leherketen ondorioz ez zuten egiteko. Batzuk larriki zauritu dira leiho-zatiekin.

Nolakoa da eguneroko bizimodua Ukrainan?

Jendeak lanean jarraitzen du, arazoei aurre egiten. Pandemiak ekarritako ara-

“”

“Bizi izan nintzen hirian etxebizitzaren prezioak boskoiztu egin ziren, han bizitzea seguruagoa delako”

zoez gain, gerrarenak ere pairatu behar dituzte orain langileek; adibidez, gizarte langileek, irakasleek eta erizainek ez dakite nola lan egin gerratik bizirik atera diren pertsonekin.

Sindikatu askok erantzukizun humanitarioak hartu dituzte. Pentsa, adibidez, milaka langilek eta haien familiek Mariupoletik alde egin dutela, etxerik gabe gelditu direla eta denek behar dutela aterpea eta janaria; beraz, dirua ematen da haienzako higiene-produktuak eta elikagaiak erosi ahal izateko. Sindikatuek kit humanitarioak antolatzen dituzte eta afiliatuei ematen dizkiete. Badakit, halaber, sindikalistak elkarla-



nean aritzen direla Gurutze Gorriarekin, erakunde humanitario batzuekin eta nazioarteko sindikatuekin. Gerra garaian, desplazatuei eta errefuxiatuei eraginkortasunez laguntzeko erabiltzen dira komunikazio bide horiek.

Gu, sindikatu garen aldetik, langileak aholkatzen saiatzen gara, baita beste herrialde batzuetara joan aurretik ere, langile askorentzat ohikoa izaten baita Europara migratzean ilegalki lan egin behar izatea.

Zer aldaketa bizi izan ditu lan-merkatuak Ukrainan?

Gerra piztu zenetik lege martziala dugu, eta horrekin batera behin-behineko lege bat onartu dute, lan-merkatuan enpresaburuari ñabardura batzuk sinplifikatu dizkiena. Gobernuak legeztatu egin du herrialdetik alde egin duen langile bat kaleratu ahal izatea. Aparteko orduen kantitatea igotzea ere legeztatu dute: ekoizpenak hala eskatzen badu, 60 orduz lan egin behar duzu. Aparteko orduak inolako mugarik gabe egitea legeztatzeko onartu zen behin-behineko lege hori.

Egoera oso arriskutsua da gerran dagoen estatu batentzat. Tentsio soziala sortzen da gizartearen enpresaburu baten hitzarmen kolektibo baten arauak errespetatzen ez dituen edo langile bat kaleratzen duenean, ez soilik gerran dauden lurraldeetan, baizik eta bakean daudenetan ere. Enpresariak ez dute

inolako mugarik, legeak aukera ematen die enplegatuek ez kotizatzen. Ezagutzen ditudan egoera batzuetan, enpresek ez dituzte afiliazio sindikalaren kuotak ordaintzen; gerraren argudioa erabiliz, kontabilitate-sailak blokeatu egiten ditu transakzio horiek.

Orain 5371 lege-proiektua onartu dute, aukera ematen diena 250 langile baino gutxiago duten enpresei lan-baldintza bereziak ezartzeko. Horren ondorioz, enpresaburuak banaka erabaki dezake nori ordainduko dion prima bat eta nori ez, gardentasunik gabe, kontratu-harremana ez baita kolektiboa, indibiduala baizik. Hau da, lege-proiektuak lehentasuna ematen die banakako lan-harremanei, lan-harreman kolektiboen gainetik. Hori egitea ikaragarria da, eta hitzarmen askok ezartzen dutenaren kontrakoa.

Pertsona askok lan egiten duten enpresa handietan, langileek pakete soziala jasotzen dute eta ordainketa eta hitzarmen kolektiboak egiteko aukera dute. Enpresa txikiagoetan, berriz, errazagoa da enpresariarentzat langileen eskubideak urratzea. Ikusten ari garenez, 1.000 langile dituzten enpresak hainbat konpainiatan banatzen ari dira. Adibidez, lehen *Coca Cola* zena orain *Coca Cola foods*, *Coca Cola delivery* eta *Coca Cola companies* bihurtuko da. Langileak lantegi berebetean jarraituko dute, baina formalki enpresa desberdinetan lan egingo dute, langileak diskriminatzea

ahalbidetzen duen lege ergel hori dagoelako. Denborara, enpresak modu horretara kostuak gutxitzen saiatuko dira.

Gerra egoerako behin-behineko legediak soldadak ez ordaintzeko aukera ematen die enpresari. Are gehiago, idatzita dagoen ergelkeria baten arabera, herrialde erasotzaileari dagokio atzeratutako soldata guztiak ordaintzea, hau da, fantasiaren alorrean sartzen da jada.

Beraz, ardura hori Errusiaren gain uzten dute?

Bai, estatuak ez du lan-arloko legeria betearazteko erantzukizunik hartzen. Ez dakit hori munduan beste inon gertatuko den. Jakina, nazioarteko mugimendu sindikalak, Lanaren Nazioarteko Erakundeak eta tokiko sindikatuek egoera salatzen dute eta lege horren gehiegikeriari aurre egiten diote.

Zer egiten du Zelenskik horren harira?

Edozein presidente saiatzen da bere politika antisozialengatik duen erantzukizuna neurri batean gaineratik kentzen. Gerraren aurretik ere esan ohi zuen "hori ez da nire eginkizuna, hori ez dagokit niri, nire erantzukizuna ez den zerbait eskatzen ari zatzaizkidate. Komandanteburua naiz eta Konstituzioa betetzen dela bermatzea da nire ardura". Zelenski oso trebea da erretorikan, oso zaila da ezer aurpegiatzea. ●



DANI BLANCO

Txikori-belarra
(*Taraxacum officinale*).

TXIKORI-BELARRA ONGI-ETORRI UDABERRIARI

GARBIÑE LARREA
@GAR2LARREA

Aitañi-lilia, kardabera, txikori-orikatxa, mandobiloa edo beste izenen batekin deituko diozu akaso sendabelar honi. Bere lorea udaberri iragarle dela esango didazu. Goizean goizetik loreak irekita ikusiz gero badakizu eguraldi ona –eguzkitsua behintzat bai– izango dugula, eguraldiari erreparatzen dion horietakoa bazara. Lurzorua aireztatzen laguntzen duela ikasi zenuen eta bere sustrai luzeekin lurraren sakonetik kaltzioa ekartzen duela ere bai, gero beste landare batzuek eskura eduki dezaten. Lorearen nektar goxoak erleak elikatzen dituela ikusi duzu, erleak eta erlezainak zaintzea beharrezko dugun garai hauetan. Amonak kafeari nahastu ziola ere akordatuko zara, txikori pakete gorria gogoan duzularik.

Horiek denak horrela eta, hala ere, sendabelar honenganako gutxiespina ikusten dut maiz. Hain ona bazen gehiago erabiliko genukeela, asma-tuko genuela etekin handiagoa ateratzen... Ezjakintasuna eta kultura zientifiko murrizta adierazten duten kontu merkeak.

Izan ere, atzerritik ekarritako sendabelarrekiko lilura ari zaigu gailentzen. Kanpokoei ederretsirik gabiltza bertokoen ezagutza galduarazten ari garelarik; gertuko eta merkea dugulako ez dugu ontzat jotzen. Marketing berde baten biktima gara eta ez gara gai manipulazio horren aurrean begiak irekitzeko. Eta txikori-belarrak espaloi zirriztuetan loratzen segitzen du, hormigoi artean garai berrietara egokitzen gu baino abilagoa dela erakutsiz, baina guk dagoeneko ez dakigu zer egin berarekin.

Bere xumetasunean balio terapeutiko handikoa da, osagai ugari baititu. Digestio aparaturoko erabili izan da, gibel eta behazunerako bezainbeste gernu bideetako gaitzetarako (*piss-en-lit* dugu frantsez, ohean pixa eginarazi dezakeela iradokiz-edo), linfa drainatzeko, aurpegiko orbanak eta iluntasunak garbitzeko eta abar. Martxoak 19an Antxon Apiñaizek Twitterren giza osasunean dituen onuren berrikuspen integrala egiten duten bi artikuluz zientifiko ekarri zituen, zein bai-

no zein interesgarriagoa. Oraindik ere ikertzeko asko daukagula eta jakintza eguneratu beharra daukagula ikusaraziz.

Udaberriko hiru hilabete hauetan bederatziruarenak egitea iruditzen zait baliatzeko aukera on bat. Hau da, hosto lehortuekin infusioa egin eta baraurik hartu bederatziru egunean jarraian. Sustrai lehortuak bost minutuz egosita gure hesteek eskertuko duten edari mikatzagoa (ez estali gozagarriekin) edukiko dugu; sustraietan dagoen inulina zuntz prebiotikoak bifidobakterioak eta azido laktikoa sortzen duten bakterioak elikatzen dituela ikusi baita. Loreak ez tatan beratuta jan nituen iaz, ogia eta gazta freskoarekin batera, udaberriko gutizia.

Hori bai, haurdunaldian eta edoskitzaroan ez hartu, urdaileko eta koloneko gaitzak daudenean zein behazunean harriak daudenean (edo behazuna falta baduzu) ezta ere. Diuretikoak hartzen ditugunean tentsioa jaisteko botika hartzen badugu, medikuari galdetu aurretik. ●

GIPUZKOAKO BASO ZABAL HANDI



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

1 847an Juan Ignazio Iztuetak *Gipuzkoako probintziaren kondaira* liburua argitaratu zuen. Bertako bederatzigarren kapituluak izen hau du: *Gipuzkoako Baso zabal andi eta zuaitz liraiñ galanten barri zuzen egiazkoa*. Honela da bere hasiera: “Gipuzkoako mugape guztia da, baso edo oian galant begitango anitzekin osatoro josia, eta zuaitz mardul lirañaz ondo janzia. Berenez jαιο ta aziak dira ugaritsue-nak, bikañenak, eta baliorik andienekoak. Probinzia onetako lurrak bere grifiaz ematen dituen zuaitzik ezagutuenak dira...”; eta izen parrasta botatzen du.

1847an, atzo, Gipuzkoan zeresana bazuten arbola eta bestelako landare mordo hori berritzeak ez digu kalte egingo. Ez da makala zerrenda! Zergatik ote datoz hurrenkera horretan? Nire iritziz, egileak garrantzitsuenetik apalenera jota idatzi zituen aurren-hurren horretan. Izenetan ere badago zer ikasia bertan.

Aretza edo haritza (*Quercus robur*), pagoa (*Fagus sylvatica*), artea (*Quercus ilex*), zumarra (*Ulmus spp.* seguruenera zumar hostozabala *Ulmus glabra*), agiña, hagina (*Taxus baccata*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), ametza (*Quercus pyrenaica*), elorria (*Crataegus monogyna*), alza edo haltza (*Alnus glutinosa*), gorostia (*Ilex aquifolium*), urritza edo hurritza (*Corylus avellana*), lertxuna (*Populus tremula*), zumalikarra edo zumalakarra edo oilakarana (*Frangula alnus*), ezkia (*Tilia spp.* seguru asko ezki hostozabala *Tilia platyphyllos*), astigarra (*Acer spp.* ziur aski astigar zuria edo ostartza *Acer pseudoplatanus* eta astigar arrunta *Acer campestre*), makala (*Populus nigra*), ostatzuria edo hostazuria (*Sorbus aria*), kurkutxa edo gurbitza (*Arbutus unedo*), intxusa (*Sambucus nigra*), ezkeraina edo ezker-aihen (otsaiheña edo biera-belarra *Humulus lupulus* izan daitekeena, edo basoetako atxaparra *Lonicera periclymenum*, edo ezkerter zuria *Calystegia sepium* edo ezkerter beltza *Convolvulus arvensis*), likabra edo epurua (*Juniperus communis*), erika edo txilar jen-



Juan Ignazio Iztuetaren erretratua, Gregorio Hombrados Oñatibiak oleoz egina.

dea (*Erica spp.* eta *Calluna vulgaris*), elotriska edo elorri-kriskak (*Genista scorpius*), itsasa edo isatsa (*Cytisus scoparius*), zurbelta edo zubeltza edo abarritza (*Quercus coccifera*), artanozka, gurpirtxa edo gurbitza (*Arbutus unedo*), zamandorra edo zuhandorra (*Cornus sanguinea*), maalza edo maaltza edo udare makatza (*Pyrus pyraster*), otea (*Ulex spp.*), sosatsa, zumea (*Salix spp.*), zai-ka, aiena edo aihen zuria (*Clematis vitalba*), nekosta (*Cupressus sempervirens*), arantza beltza (*Prunus spinosa*), arantz-zuria, arkasatza edo endalaharra (*Smilax aspera*), txillarra, arramua edo hereinotza (*Laurus nobilis*), ziga (*Malva sylvestris*), ezpela (*Buxus sempervirens*), gañabera (*Arundo donax*), kotala, udalatxa (*Sorbus x domestica*), zurikotxa, friskua edo albortxikoa (*Prunus armeniaca*), ziurza, lekeltxorra (*Pistacia lentiscus*), biñorria edo beltzalia (*Ligustrum vulgare*), karraska, urkia (*Betula spp.*), otsalizarra (*Sorbus aucuparia*)...

Zenbat izen, zenbat jakintza! Batzuk ezin izan ditut identifikatu... Zenbat ikergai! Eta falta direnak? Gaztainondoa (*Castanea sativa*) non dago? Eta maspila (*Sorbus torminalis*)? Eta abar...

Tokitan gaude. Zenbat ezagutzen ditugu orain? Gaur egun gure jendartea egiten ari den mendiaren kudeaketa zantarraren adierazle pedagogikoa. Eta basogintzaz arduratzen direnez zer esan! Gure ondorengoak lotsatzeko modukoa. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA



Zer egin urratu honekin? (Enetz)

Gereziondoaren mentu-oinean ikusten den urratu hori zauri handia da. Hezurra duten fruituak ematen dituzten arbola denak oso ahulak dira hemen dugun hezetasunaren aurrean. Euskal Herriko isurialde mediterraneoan beste gauza bat da. Han lehor izaten da eta gaitzak sortzen dituzten onddoak ezin dira hain azkar ugaltu.

Isuri atlantikoan bizi bada, kontuz zauri horrekin. Nahi izatera zauriaren bi aldeetara sumatzen den azal ihartua kendu izerdi berriak orbaina errazago sortu eta zauria itxi dezan. Ez eman zaurian ez ukendu, ez pasta, ez horrelakorik; airetan utzi. Nik inola ere ez nuke lurperatuko. Horrek hezetasuna zaurian bertan izatea lekarke eta gaitza askoz errazago sartuko litzateke. Utzi dagoen moduan.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

TOPAKETA AGROEKOFEMINISTA “LANDA EREMUKO FEMINISTAK ETA EKOLOGISTAK GARA, ARDATZ HORIEK GURUTZATZEN DIREN TOKIA DA GURETZAT AGROEKOFEMINISMOA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Aramaioko talde feministak bultzatuta, agroekofeminismoaren inguruko topaketa egin zuten Arabako herrian martxoaren 4an. Euskal Herriko hainbat txokotatik 35 bat emakume batu ziren ekimenera, “lurra eta bizitza suntsitzen dituen sistemari alternatiba” lelopean. Proiektu txikitzaileez eta horiek landa eremuan eta emakumeen bizietan duten eraginaz hausnartzen aritu ziren, baita eredu suntsitzaile horren aurrean feministotik, ekologismotik eta landa eremutik sor daitezkeen alternatibez ere.

MAKROPROIEKTUAK IKUSPEGI FEMINISTATIK

“Martxoaren 8aren bueltan zer antolatuta pentsatzen, herrian pil-pilean dagoen zentral eoliko proiektuen gaia etorri zitzaigun burura, eta hori ikuspegi feministatik lantzeko beharra sumatu genuen”, adierazi du Irati Mujika Larreta taldekideak. Talde feministako partaide gehienak ekologistak dira, eta nekazaritza bizi ez arren, landa eremuko herritar gisa, nekazal eta “agro” mundu hori hurbileko sentitzen dute. “Ikuspegia zabaltzea da gure asmoa: landa eremuan bizi gara, feministak gara, ekologistak. Bada, ardatz horiek guztiak gurutzatzen diren toki bezala ulertzen dugu agroekofeminismoa”, dio.



Euskal Herrian barna makroproiektuen mehatxupearan dauden eta landa eremuan bizi diren emakumeen ahotsak batzea eta horiek entzunaraztea izan da topaketaren asmoa. “Proiektu txikitzaile ugari dauzkagu: Lapurdin nekazaritza lurren espekulazioa, makroetxaldeak eta negutegi erraldoiak Nafarroan, Gipuzkoako zentral eoliko proiektuak...”. Mujikak gogorarazi duenez, azken 30 urteetan, espekulazioaren eta artifizializazioaren ondorioz, nekazaritza lurren 80.000 hektarea baino gehiago galdu dira Euskal Herrian: “Proiektu hauek megawatt-etan eta antzekoetan aztertzen badira, guk bizitzetan, harremanetan eta zapalkuntzetan duten eraginaren arabera neurtu nahi izan ditugu”.

ALTERNATIBAK LANTZEKO BEHARRA

Agroekologia eta elikadura burujabetza, dekolonialitatea, deshazkundera, ekoizpen

eta kontsumo ohiturak eta beste hainbat gai ukitu zituzten tailerrean. “Auzi horietan guztietan kritika eta autokritika egin beharra dugu, geure buruei galdetu duintasunez bizitzeko zer behar dugun, eta hori nola eskuratuko dugun”.

Topaketan ateratako ideiekin adierazpen bateratua osatzen ari dira orain ki-deak, eta aurrera begira, elkargune gehiago antolatzea eta alternatibak sortzen jarraitzea dute asmo. “Masa kritiko baten beharra ikusi genuen, tailerreko edukiak lantzen segitzeko eta aurrerago topaketa handiago batean berriz biltzeko”, azaldu du Mujikak. Azpimarratu duenez, hiri handiak mantentzeko landa eremuaren sakrifizioa eskatzen da gaur egun, eta horren aurrean, beharrezkoa izanen da landa eremuko emakume feministen eta ekologisten arteko aliantzak sortzen eta elikatzen jarraitzea. ●

aleka

**EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK**


Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa

**EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!**

www.aleka.eus

- BASERRITARRAK SAREAN
- AGROEKOLOGIA
- BIOANIZTASUNA
- BERTAKO EKOIZPENA

ERREDAKZIOA



DANI BLANCO

Gazteak datoz ate joka

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Praktikaldian dira oraintxe Leire Rodriguez Garmendia eta Irati Irazusta Jauregi ARGIAN, otsailaren 1ean hasi eta maiatzaren 31ra arte. Beraiekin hitz egin dugu esperientzia nola doan jakin nahian, irakurleek ere gehiago ezagutzeko eta, zergatik ez, antzeko lanaldi bat egitea pentsatzen ari denari amua botatzeko.

Kazetaritzako azken ikasturtea dute biek eta esparru honetan lan egiten duten lehen aldia da. Rodriguezen kasuan, aurretik Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasketak egiten ari zela IKOM komunikazio agentzia kreatiboan aritu zen praktikak egiten.

Ez diet elkarrizketa batera egin, baina antzekotasunak badituzte erantzunetan. Polita iruditu zait biek azpimarratzea lan egiteko era edo antolatzea modua. Erredaktore papera jokatzen duen figura zehatzik ez dago, eguneroko errotazio-sistema batekin funtzionatzen da ARGIAN eta gaur kazetari lanak egingo dituenak bihar editore lanak egingo ditu, edo eguna antolatzeko goizeko albisteen lehen erreposoa egiteko galbahe izatea egokituko zaio, zuzentzaile ez denean. "Lana banatu egiten

da", esan dute biek. "Atentzioa eman dit funtzionamenduak", azaldu dute.

Praktikaldian ari dena taldean sartzten da, hedabidearen eguneroko martxan. Goizeko 9:00etan eguneko taulan jarrita dauden albistek gainbegiratu, 9:30ean taldeko bilera egin, lehentasuneko albistek zein diren adostu eta lanak banatu ondoren, ekin. Lehen albistea sortuta, editore-zuzentzailearen eskuetatik pasa eta webgunean dagoenean, sare sozialetan zabaldu ondoren, heltzen zaio hurrengo albisteari, 13:00ak jotzen dituen arte.

"Gustura" daude Lasarten topatu duten giroarekin, eta lau hilabeteko egonaldia "aprobetxatu" nahi dute; esperientziatik ikasi. Biek dituzte atsegin gizarte gaiak, Irazustak kultura ere aipatu du eta Rodriguezek aldiz politika.

Kazetaritza, beste lan guztiak bezala, arituz ikasten da. Unibertsitateko teoriak sarri urrun egoten baitira errealitatetik. Lanbide bat ikasi, hedabide baten funtzionamendua barrutik ezagutu eta harremanak egiteko unea dute Leirek eta Iratik. Atera zukua egonaldiari eta gero gerokoak. ●

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"Orain arte internet bidez musutruk jaso dudan kalitate handiko lanari nire aportazio txikitxoak egin nahian".

Lezamatik Laurentzik

"Euskara maite dudalako eta kazetaritza independentea funtsezkoa delako egia eta askatasunaren jabe izateko".

Oñatitik Migelek

"Aldizkaria erakargarria delako eta irakurri nahi dudalako."

Saldiaстик Markelek

"Interes gehien duten albistek irakurtzen ditudalako hemen, eta gustura. Politikaren arloan eta mundu mailan ateratzen ez diren edo isiltzen diren albistek jasotzen dituzuelako. Irakurtzen eta erabiltzen oso erraza delako. Eta benetako lankide profesionalak daudelako ARGIAN, nire ustez behintzat".

Mutrikutik Eukerik

"Zuen ikuspegiak eta praktikak hor egon behar du, bai ala bai!"

Otxandiotik Miren Jonek

"Sekulako ahalegina egiten ari zarete. Zuen lana oso garrantzitsua da hainbat arlotan, eta euskarari dagokionez ere bai. Mila-mila esker!"

Gasteiztik Ameliak

Esklabo ohiaren ironia askea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Big Springs, Tennessee (AEB), 1864. Sezesio Gerra betean, Batasuneko soldaduak Patrick Henry Anderson koronelaren plantaziora iritsi ziren eta bertako esklaboak askatu zituzten, tartean Jourdon eta Amanda Anderson senar-emazteak. Biak Daytonera (Ohio) joan ziren eta han langile aske gisa hasi ziren lanean. Hurrengo urteko udan, gerra zibila amaitu eta hilabete gutxira, jabe ohiak gutun bat idatzi zion Jourdoni, plantaziora itzultzeko eskatuz, negozioa gainbehera baitzeturren. 1865eko abuztuaren 7an erantzun zion Jourdonek; idazten ez zekienez, gutuna ugazaba berriari diktatu zion, Valentine Winters abokatu abolizionistari, eta hark “entzun bezala jaso” omen zituen esklabo ohiak esandakoak.

Sarreran, Jourdonek dio pozten dela koronela bizirik dagoela jakiteaz, “alde egin baino lehen bitan tiro egin zenidan arren”. Eta familiari goraintziak ematen dizkio. Ondoren, bizimodu berriarekin gustura dagoela dio, Amandari “Anderson anderea” esaten diotela eta haurrak eskolan ikasten ari direla. Beraz, “zenbateko soldata jasoko dudan esaten badidazu, itzultzea komeni zaidan ala ez erabakiko dut”.

“Mandy kezkatuta dago”, jarraitzen du gutunak, “eta adeitasunez tratatuko gaituzula ziurtatu nahi du”. Horretarako frogat bat eskatzen dio Jourdonek; esklabo gisa aritutako urteengatik zor dion soldata ordaintzea. “Zure zerbitzura leialtasun osoz aritu nintzen 32 urtez, eta Mandy 20 urtez. Nik hilabetean 25 dolar jasoz gero eta Mandyk astean 2 dolar, guztira, gure irabaziak 11.680 dolarrekoak lirateke. Zenbateko horri gure soldatak denbora luzez atxiki izanaren interesak gehitu behar dizkiozu, eta gure arroparen gastuak kendu. Ni hiru aldiz joan nintzen sendagilearengana, Mandyri hortz bat atera zioten, eta hori ere kendu dezakezu”.

Ohion, Jourdonek larunbat iluntzetan kobratzen zuen soldata, “baina Tennessee beltzek ez genuen sekula paga egunik izan, zaldiek eta behiek ez zeukaten moduan. Ziur aski kontu-garbitze eguna iritsiko zaie langileei soldatarik ordaindu gabe iruzur egin dieten guztiei”.



DAYTON HISTORY BOOKS

Ezkerrean Jourdon Anderson esklabo ohia, askatasuna 1864an lortu zuena. Eskuinean, Anderson koronela, jourdonen jabe ohia.

Ondoren, seme-alaben etorkizuna du hipside. Milly eta Jane alabak koskortuta daudela eta ederrak direla dio. “Nahiago nuke hemen geratu eta gosez hil, jabe bortitz eta gaiztoek alabak lotsaraztea baino”. Plantazioaren inguruan haur beltzentzat eskolarik ireki ote duten ere galdetzen dio, “seme-alabei heziketa egokia ematea baita nire desira nagusia”.

Amaitzeko, George Carter Wilson konterriko arotzari goraintziak emateko eskatzen dio, “eta eman iezazkiozu eskerrak nire kontra tiroka ari zინean pistola kendu zizulako”.

EGIAZTATURIKO HISTORIA BAT

Amanda, Jourdon eta seme-alabak ez ziren sekula Big Springera itzuli, jakina. Eta gutuna “birala” egin zen berehala; lehenik *Cincinnati Commercial* egunkarian argitaratu zuten, eta handik bi astera, abuztuaren 22an, *New York Daily Tribune* egunkario orrietara iritsi zen.

Baina gutuna eta protagonistak benetakoak zirela zalantzan jarri zuenik ere izan zen, abolizionisten asmakizunak izan zitezkeela pentsaturik. Bada, historialariek datu guztiak egiaztatu dituzte. Raymond Winbushek koronelaren arrastoari jarraitu zion: ez zuen esklaboak itzultzea lortu, plantazioa saldu zuen zorrak kitatzeko, eta handik bi urtera hil zen. Winbushek esklabojabearen oinordekoekin hitz egitea lortu zuen 2006an, eta “Jourdon itzuli ez zelako oraindik haserre” daudela esan zitoten.

Senar-emazteen bidea, aldiz, Michael Jonhson historialariak ikertu zuen, esklabo-zerrendak eta erroldak arakatu. Mandyk eta Jourdonek 11 seme-alaba izan zituzten, Jourdon 1907an hil zen 81 urterekin, eta Mandy 1913an, hark ere 80 urtetik gora zituela. Elkarren aldamenean ehortzita daude, Daytoneko Woodland hilerrian.

DOINUELE, EUSKARAZKO PLAZEN SAREA

ZORTZI EKIMEN,
HAMAIKA AUKERA
ETA HELBURU BERA

Euskara hutsezko liburuak eta euskal musika sustatzen dituzten azokek eta ekimenek indarrak batu dituzte, Doinuele sarea sortuta. Bertara batu diren zortzi ekimenetako kideak elkarrizketatu ditugu: Galdakaoko *Sormeneko* Ane Legarreta, Zarauzko *Literaturiako* Itziar Iruretagoiena, Ziburuko azokako Ladix Arrosagaray, Hernaniko azokako Xabier Ezponda, Sarako *Ikusi-Mikusiko* Amaia Hennebutte, Lazkaoko azokako Joxepa Madariaga, Baztango (*H*)ilbeltzako Elurre Iriarte eta Azkoitiako *Geure Gelatik*-eko Julen Garate.



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Doinuele sortu berri da. Zer eman dio dagoeneko ekimen bakoitzari? **Joxepa Madariaga:** Lehenik, elkar ezagutu dugu. Jakin dugu non zer dagoen. Ekimen gehiago ere egongo dira, noski, eta datozela, ongi-etorriak dira. Behin sarea sortuta, elkarren berri dugu, laguntza eskatu eta laguntza emateko. Beste edozein arlotan bezalaxe, honetan ere komunikatuta egotea eta elkarlana dira beharrezko. Eman eta hartu. **Xabier Ezponda:** Sareak beti ematen du indarra, babesa, elkarlana. Ideiak partekatze hutsak jada asko eman du: beste herri batean ongi funtzionatu duen

zerbaitek gurean ere ongi funtzionatu dezake, beste batean ez...

Ladix Arrosagarai: Ikusiko da sareak aurrera begira zer ematen duen, baina dagoeneko ekarri du ohartzea bakoitza ez dagoela bere txokoan bakarrik, eta ohartzea zortziek helburu bera dugula, euskara hutsezko azoka edo plaza egitea. Horrek indarra ematen du. Elkarrekin plazaratzea, bakoitza bere txokotik Euskal Herri osoaren aurrean agertzea, asko da.

Amaia Hennebutte: Muga badugu oraino Iparraldearen eta Hegoaldearen artean. Biziki sartua da gure buruetan eta horrelako ekitaldiek laguntzen dute muga gainditzen, elkartzen, topatzen.

Eraginkorrak al dira ekimenok euskaraz bizitzeko dauden zailtasunak gainditzeko eta musika zein irakurzaletasuna sustatzeko?

J. Madariaga: Azoka hauekin ez dugu arazoa konponduko, baina lagundu bai, asko. Jendearengana hurbiltzen gara eta berritasunetan indarra jarriz, garaian literaturan eta musikan dagoena eskaintzen dugu. Zenbait etxetan, horri esker sartzen da lehenengoz euskarazko liburu bat.

A. Hennebutte: Uste dut ekimen hauek biziki garrantzitsuak direla. *Ikusi-Mikusiko* azoka haur eta gazteen literaturari lotua da, eta bertan egoteko baldintza da euskara hutsezko liburuak izatea, ez



DOINUELE AURKEZTU ZENEKOA

Martxoaren 15ean aurkeztu zen Doinuele, euskarazko plazen sarea. Bilboko Bira espazioan egin zen aurkezpena eta horren ostean elkarrizketatu genituen kideak. Ezkerretik eskuinera: Ladix Arrosagarai (Ziburuko azoka), Amaia Hennebutte (Sarako *Ikusi-Mikusi*), Xabier Ezponda (Hernaniko azoka), Itziar Iruretagoiena (Zarauzko *Literaturia*), Ane Legarreta (Galdakaoko *Sormene*), Elurre Iriarte (Baztango *Hilbeltza*), Julen Garate (Azkoitiko *Geure Gelatik*) eta Joxepa Madariaga (Lazkaoko azoka).

elebidunak. Zergatik? Elebiduna bada sarri lerratzen garelako frantsesezko testua irakurtzera. Beraz, behingoz bada parada bat euskara hutsean bizitzeko. Haurrei bono bana ematen zaie eta horrekin liburu bat eskuratzen dute, euskara hutsean. On egiten du urtean behin bederen euskaraz gozatzeko parada eskaintzeak.

L. Arrosagarai: Ziburu eskualde nahiko erdaldunean dago, euskaldunak gutxi gara, baina hala ere, Iparraldeko euskaldun gehienak proportzioz gure eskualdean dira. Euskaldunei aukera ematen diegu egun batez bederen bertan euskal literaturaz edo musikagintzaz gozatzeko. Bestenaz, euskarazko

liburu edo diskoa eskuratzeko autoa hartu behar dugu eta Baionara edo Irunera joan. Euskaraz bizi nahi duen komunitatea trinkotzeko ere balio du. Egun batez gure herrian euskara da nagusi, frantsesaren inposaketarik gabe, naturaltasunez. Gainera, herriko plazan: fisikoki ere euskarak erdigunea berreskuratzen du.

Itziar Iruretagoiena: *Literaturian* as-teburua antolatzen dugu eta batetik, euskal literaturan edo kulturean zalea den jendearentzako bilgune bat da eta bestalde, sortzaileentzako ere gune bat da, beraien arteko harremanak sendotzeko. Giro bat sortzen da, zale eta sortzaileen artean plaza bat.

Ane Legarreta: Galdakaoko herrian, liburu-dendek transmititu digute zer zailtasun dituzten euskarazko liburuak saltzeko. Anekdotikoki saltzen dira euskarazko liburuak gure herrian, Udal Liburutegietan ez bada. Hau bezalako ekimenak beharrezkoak dira herriari euskarazko liburuak, diskoak eta gainerako materialak eskura jartzeko.

X. Ezponda: Baliagarria da herriko eta inguruko sortzaileei aukera emateko beraien liburuak aurkeztu ditzaten. Adin ezberdinetako herritarrei euskarazko eskaintza emateko ere baliagarri da. Julen Garate: Guk berdintasuna eta euskara lotzen ditugu *Geure Gelatik* ekimean, izan ere, biak gutxitutako guneak



Non eta noiz dira Doinuele sarearen aurtengo zitak?

Urtarrilean iragan zen Baztanen *(H)ilbeltza*, *(H)ilbeltza* elkarteak antolatuta.

Martxoaren 24 eta 25ean

Azkoitian *Geure Gelatik*; Maxixatzenek antolatuta.

Apirilaren 27tik 30era

Galdakaon, *Sormene*, udaleko euskara zerbitzuak antolatuta herriko liburudendekin batera.

Maiatzaren 5etik 7ra

Zarautzen *Literaturia*, *Literaturia* elkarteak antolatuta.

Ekainaren 3an

Ziburun, Baltsan elkarteak eta ARGIA komunikabideak antolatuta.

Irailaren 30ean

Hernanin, Dobera euskara elkarteak antolatuta.

Urriaren 20an eta 21ean

Saran *Ikusi Mikusi*, Kiribil, Pamiela, Galtzagorri, Euskokultur eta Denon Artean-ek antolatuta.

Abenduaren 15etik 17ra

Lazkaon, Gerriko elkarteak antolatuta.

“Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga biziki sartua da gure buruetan eta horrelako ekitaldiek laguntzen dute muga gainditzen, elkartzen, topatzen”

Amaia Hennebutte
Ikusi-Mikusi

“Anekdotikoki saltzen dira euskarazko liburuak gure herrian. Ekimen hauek beharrezkoak dira herriari euskarazko liburuak, diskoak eta gainerako materialak eskura jartzeko”

Ane Legarreta
Sormene

“Doinuelen zortzi plaza batu gara baina gutxi da. Gure kezka da zergatik ez diren 80 plaza euskara hutsez Euskal Herri osoan. Beraz, hizkuntza kezka ere bada”

Elurre Iriarte
(H)ilbeltza

dira eta plaza eskaini nahi diegu. Zeharka bada ere, ekimen honen bidez lortu da Azkoitin irakurle talde bat egotea. Elurre Iriarte: *(H)ilbeltza* nobela beltzak hartu ditugu oinarri, batez ere salaketa soziala, ustelkeria eta halako gaiak argitara ateratzeko. Euskaratik egitea guretzat garrantzitsua da, gure mundua eta kultura erakusteko eta gure herrian usteletik zer dagoen agerian jartzeko.

Araba, Behe Nafarroa eta Zuberoaro ekimenik ez da Doinuele sarean. Hala ere, sareko kide diren zortzi ekimenak oso ezberdinak dira elkarren artean. Zein dira bakoitzaren bereizgarriak?

E. Iriarte: *(H)ilbeltza* nobela beltza ardatz izateaz gain, Baztanen kokatuta dago, landa eremuan, normalki itzalean geratzen den bazterrean. Gauza anitz jartzen ditugu erdigunean, euskara, literatura eta landa eremua ere bai.

A. Hennebutte: *Ikusi-Mikusi* haur eta gazte literaturari eskaintzen zaion azoka bakarra da Euskal Herrian. Azoka baino gehiago da, ikuskizunak, tailerrak eta gauza asko baititu barnean.

J. Garate: Emakumeei eskaintzen diegu plaza *Geure Gelatik*-en. Urtero omentzen dugu ibilbide luzeko idazle bat. Lotura interesgarria da emakumea, literatura eta euskara.

L. Arrosagarai: Doinueleko kide diren azoka guztietan daude azokaren inguruko animazioak, gurean ere bai. Ziburukoaren ezaugarria da publiko guztientzako azoka dela. Bai liburu eta bai musikarena. Eta Euskal Herri osokoa izatea: antolatzaile bi gara, Baltsan Elkarte Lapurditik eta ARGIA. Elkarlanean antolatzen dugu eta hori garrantzitsua da, euskaratik muga gainditzea. Gutxi ditugu mugaz bi aldeetako euskaldunak elkartzeko paradak: Ziburukoa izaten ahal da beste data bat. Aurreko edizioan hori gertatu zen eta polita zen euskalki ezberdinak plazan entzutea.

A. Legarreta: *Sormeneren* ezaugarriak dira sortzaile eta artistei ikusgarritasuna ematen diela, kulturzaletasuna sustatzen duela eta euskarazko bizimodua areagotzen duela.

I. Iruretagoiena: *Literaturian*, batetik azoka dago, eta argialetxeak etortzen dira bakoitza bere nobedadeak erakustera. Liburu aurkezpenak ere egiten ditugu eta euskaraz sortutako bestelako ekitaldiak ere bai: antzezlanak, mahai-inguruak... haur eta gazteentzat ekitaldiak ere egiten ditugu.



KEZKAK, EKONOMIKOAK

Doinuelen elkartu diren zortzi ekimenetako kide bakoitzak bere esperientziatik azaldu du zer eman dion sare honek eta aurrera begira zer helburu eta kezka dituzten. Ziburuko azokako Ladix Arrosagarai: "Kezka, gehienetan, ekonomikoa izaten dugu, ea erakundeek nola lagunduko gaituzten. Izan ere, azoka antolatzeak badu kostu bat, artistak ahal bezain ongi ordaindu nahi genituzke eta azokaren sarrera urririk da".

J. Madariaga: Lazkaoko azokaren be-reizgarri gisa aipatuko nuke Gerriko el-karteak sarea josia duela Goierri mailan eta Ataunen eta Seguran ere egiten dela azoka: elkarrekin eta garai berean egiten dugu.

Aurrera begira zer helburu eta zer kezka ditu bakoitzak?

J. Garate: Gure kezka handiena da diru-laguntzen menpe gaudela. Udaletxeak bi urtero egin nahi du *Geure Gelatik*, eta guk, Maxixatzen euskaldunon elkarteak, urtero.

A. Legarreta: *Sormeneren* erronka ere hori da, jarraikortasuna ematea ekime-nari.

I. Iruretagoiena: Gure helburuetako bat da zail egiten zaigun publiko horretara iristea, gazteetara. Horretarako bideak asmatzea.

E. Iriarte: Batzuetan antolatzeko energia anitz erabiltzen da diru-laguntzak eskatzeko, eta hori gabe ezin da antolatu, sortzaileak modu duin batean ordaindu nahi baditugu. Hori zailtasun handia da, indarra hor uzten badugu, beste gauza

batzuk egiteko nekatzen garelako. Doinuelen zortzi plaza batu gara, baina gutxi da. Gure kezka da zergatik ez diren 80 plaza euskara hutsez Euskal Herri osoan. Beraz, hizkuntzaren kezka ere bada, aldarrikapen bihur daitekeena.

X. Ezponda: Aukera ikusten dut Hernanin udal liburutegiak antolatu duen komiki azokarekin elkarlanean zerba-it egiteko, eta horrez gain, disko azoka ere izatera pasatzeak aukera ematen digu kontzertuak egiteko. Erronka, horiek denak ongi jostea eta koordinatzea da, ez daitezela hiru adabaki izan.

L. Arrosagarai: Ziburuko azokak neurri bat hartu du eta horri eustea da helburua. Gehiago ezin dugu lortu, plazako paretak ezin baititugu bultza. Helburuen artean litzateke gazte jende gehiago etortzea. Normalean musikara gerturatzen dira, eta hortik komikietara eta liburuetara lotzea litzateke helburua. Eta zergatik ez, sortzaileei ideia berriak ematea eta sortzaile gehiago sortzea. Kezka, gehienetan, ekonomikoa izaten dugu, ea erakundeek nola lagunduko gaituzten. Izan ere, azoka antolatzeak badu kostu bat, artistak ahal

bezain ongi ordaindu nahi genituzke eta azokaren sarrera urririk edo dohainik da. Eta beste kezka, jendeak erantzutea eta Euskal Herri osotik jendea biltzea.

A. Hennebutte: *Ikusi-Mikusi* berria da, hirugarren edizioa egingo dugu aurten. Indarra hartuz doa, uste dut ezinbesteko hitzordu bat bilakatuko dela Euskal Herrian. Zailtasuna irautea izango da. Momentuan talde txikia gara, transmisioa beharko da eta taldea osatzea, ekitaldi eder horrek segida izan dezan luzaroan.

J. Madariaga: Guk ere Lazkaoko azoka antolatzen jarraitu nahi dugu eta jende berriarengana iritsi nahi dugu. Arazo ekonomikoak hor daude, baina, bestalde, behar dena lanerako jendea da. Izan ere, kulturagatik eta euskaragatik musu truk lan egingo duen jende asko behar da antolaketan. Talde horiek berritzea da erronka, erreleboa, eta atzetik bultzada eta berritasuna etortzea.

I. Iruretagoiena: Madariagaren hitz horietan berak *Literaturiaren* izenean jarri! [barreak]

E. Iriarte: Ekimen guztienean, orokorra da. ●

“ ”

Dena eginda jaso nahi dugu eta galtzen ari da militantzia

ARIZKUN ROCK

Alberto Soule eta Eider Bidegain

Nekea eta errelebo falta. Horixe argudiatuta jakinarazi zuen agurra Arizkun Rock jaialdiak martxoaren hasieran. Aurtengo edizioa izango da azkena; ekainaren 23an ospatuko da. Ganoraz despeditzeko gogoz daude. Zerbait berezia antolatzeak satisfazioa ematen du, baina nekatu ere bai. Kontent dira hala ere. Errelebo faltaren argudioak du, akaso, nekeak baino garrantzia handiagoa. Eta ematen du zer pentsa. Antolatzaileekin elkartu da ARGIA; ez da zaila izan haiekin guztiekin hitzordua jartzea. Bi lagun baino ez dira.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  ARIZKUN ROCK

Hasierarik gabe ez dago amaierarik, eta amaierarik gabe ere ez hasierarik. Luzeagoa edo motzagoa izan daiteke bidea, baina bizitakoak uzten du arrastoa. Gustu gozoagoa batzuetan, garratzagoa besteetan. Ezeren gainetik, ordea, pozik dira Albaro Soule eta Eider Bidegain arizkundarrak, egindako lanaz harro. Amaiera iragartzeak ez baitu zertan tristeza izan; erabaki propioa izan da amaitzea, gainera.

Mimo handiz zaindu dituzte artista gonbidatuak, eta haiek ere bueltan sentitu dira eskertuak. Herri txikia izanagatik ere -600 biztanlera ez da heltzen Arizkun, Baztango bailaran-, kontent dira duela ia hamar urte sortutako proiektuak fruitu gozok eman dituelako.

Pasa dira makina bat musika talde Arizkungo plazako oholtzatik. Edo “pasa” baino, “zainduta sentitu dira”

antolatzaileek emandako tratua ondotik. “Zaintzen gaituzue edozein makrojaialditan baino hobea”; makina bat artistak halakoak esan dizkiete, hala oroitu du Soulek. Eta Bidegainek gehitu dio: “Musikariak ematen dira kontu zer balio ematen diegun tratuari eta zaintzari. Harreman ederra sortzen da, eta oroitzen dira gutaz. Eta guk, arras oroitzapen politik dauzkagu”.

ZIRTZILKERIA DIRUDIENA

Oinarrizkoa eta gutxienekoa izan zitekeen, baina hartu-eman horretan jabetu dira ezetz, zerbaitek berezi egiten duela Arizkun Rock jaialdia. Bertan egon ezean, zaila da ulertzen zer nolakoa den sortzen den giroa. Nolabait ere irudikatu ahal izateko: artista gonbidatuen gainean egoten dira festibalaren antolatzaileak, ongi etorri beroa egiten diete, elkarrekin egiten dituzte otorduak eta tratua oso gertukoa izan ohi da; funtsean, oroitzapen ederra uzten saiatzen dira. Artisten ikuspuntutik, uda hasiera betean, Baztango herri txiki batera joan eta halako goxotasuna jasotzeak bihur dezake berezi, emanaldia bera ez ezik, baita itzulerako bidaia bera ere. Hala esan izan diete, besteak beste, Esne Beltza taldeko kideek.

Gonbidatuei plazera eskaintzen ahalgindu dira urteotan antolatzaile izan diren kideak, eta uste dute lortu dutela, erreplika jaso dutelako. Soule: "Manager batek erran zigun haiendako zer berezia izan zen hemen jotzea. Halakoetan, beraien errealitatea izaten da, joaten direla kontzertu lekura, normalean erdi mozortuta dagoen gazte batek esaten diela furgoneta non aparkatu, non desmuntatu gauzak, nora jo afaltzera... Eta tratu gutxi bestela".

Baina horrela ibiltzeak nekutzen du. "Gauza horiek egitea" utzi ahal zutelako Soulek, pentsatu izan du behin baino gehiagotan, eta hobe zatekeen akaso, horren ordez "lau gauzatxo prestatu eta parrranda ederra egitea". Baina ez: "Sartzen gara mundu horretan nahi dugulako". Eta Bidegainek, are gehiago sakontzeko asmoz, oinarrira jo du: "Haien paperean jarrita: nola nahiko nuke ni tratatzea? Hortik abiatzen gara. Ez dugu eskainiko guk jaso nahiko ez genukeen zerbaitez".

NEKEA, EZ SOILIK GOXO ZAINTEAGATIK

Bidegain eta Soule dira Arizkun Rock jaialdiaren arduradunak. Gazte bi, ez gehiago eta ez gutxiago. Eta nekatu dira. Muntaketarako-eta jende gehixeago batzen dira, antzerako lan jakintarako ere bai, baina faltan sumatzen dute zutabe sendo eta konstanteagorik alboan izatea.

Galdetu diegu, herri txikia izanagatik, ez ote den gazteen "exodorik" gertatu, ez ote dagoen Nafarroako Pirinioen kasuan gertatzen ari den husteko larritasunarik. Edo esaterako, ez ote duen Arizkungo gazteriak Elizondan edo Baztango beste



DANI BLANCO

herriren batean egiten bizia. "Apur bat" agian bai, baina ezezko argia eman dute: "Gazteak bagara herrian, 60 eta piko edo bai. Afera ez da hori; kontua da ez dela gauza asko egiteko gogorik".

Zer gertatzen da, beraz? Laguntzera sartu direnek, antolakuntzara batu izan direnek, sartu bezala ikusten zutela zenbat lan zegoen atzetik, eta egin eta jaialdia bukatu ahala utzi egin dutela; hala diote bi elkarrizketatuek. Urtez urte errepikatu den joera da, antza denez. Soulek kasik urtez urte entzun duena

hauxe izan da: "Beno Albaro, badakit ze lana den hau egitea, gustura egon naiz, baina ni banoa". Badiote biek, edizioz edizio errepikatu den joera dela; azkenez, iaz. Urterik onenetan lau kide izatera heldu dira antolakuntzan, pare bat urtez edo; hiru lagun ere izan ziren hainbat urtez; orain, bien artean antolatzen dute jaialdia.

Belaunaldi kontua izan daiteke errelebo faltaren arrazoia. Erreleborik eza gertatzen da zenbait kasutan, edo ematen den erreleboa aski txikiagoa izatea



aurretik zegoenarekin alderatuta, beste hainbatetan. Iritzi argia du Soulek: “Gaur egun dena eginda jaso nahi dugula. Ez dago lanik, ez militantziarik, eta galtzen ari da auzolanaren izpiritua ere bai”. Eta urrutira joan gabe, hainbat adibide ipini dituzte: Baztandarren Biltzarra antolatzen dutenek “ultimatum” moduko bat eman zuten aurtengo edizioari begira, erreleboa “exijituz” ondorengoei, eta azken orduan sortu da taldetxoia. Horrez

“ ”

Musikariak ematen dira kontu zer balio ematen diogun tratuari eta zaintzari; arras oroitzapen onak dauzkagu

gain, aipatu dute, Bilboko txosnetan ere badituztela ezagunak eta han ere, antza, arazoak dituztela taxuzko taldea osatzeko. Daudenek konpromisoa badaukatela diote, baina gutxi dira dauden horiek. “Eta jo, faltan nabaritzen da jendea. Zerbait zehatza egiterakoan, esaterako, beste bi esku, edo lau, edo sei –pentsa!–, ongi etorriko liriateke... Baina ez dago. Gure kasuan, gu biok geratu gara”.

Gazteak elkartu eta egin zuten bilera handi bat herrian, Arizkun Rocken

jarraienari buruz hitz egiteko. “Juntatu ginen 20-30 lagun, Eiderrek eta biok azaldu genuen azaldu beharrekoa, egoera nola zegoen, panorama makurra... Baina ez zen inor animatu. Gazteon Whatsapp talde bat ere badaukagu, eta hortik bota ditugu mezuak, baina inork ez digu deus erran”.

Herriko bestak bai, gazteen artean antolatzen dira, baina badituzte bere berezitasunak Arizkunge jaiek. Dami-nausi delakoak txandatzen dira urtero. Lau gazte dira eta haien esku dago antolakuntza, gehien-gehiena bederen, kudeaketa lan gehienak egin, diru kontuak eraman eta beste. “Tradizio kontuak dira gehiago, eta ohituta gaude horretara, onartuta daukagu”, dio Bidegainen. Urtero aldatzen direnez, egokitu egiten denez ezkaratzeko edo elkarte gastronomikoko batzordeen antolaketa bailitzan, jendeak barneratuta dauka hala izan behar duela. “Eredu hori ez balego, ikusi beharko litzateke ea festak antolatzen jendea batuko ote zen”.

MUSIKA ZABALIK, DENENTZAT

Badu berezitasun bat Arizkun Rock jaialdiak lekuri gehientsuenetako festibalekin alderatuta, doan eskaintzen dela. Bien artean esperientziarik handiena Soulek du, eta urteotan funtzionatzeko mila modu ezberdin bururatu izan zaizkion gisan, galdetu izan dio bere buruari zergatik ez duten txartel salmenta bidez funtzionatzen: “Errazagoa litzateke, finantzazioari begira, sarrerak saltzen jartzea; baina uste dut Arizkun Rocken

kontzeptua aldatuko litzatekeela, guretzat musika zabalagoa, libreagoa eta handiagoa delako”.

Jaialdiaren kontzeptua ez ezik, herria erdigunean jarrita eta herriaren laguntzaz ospatzen dela jarri du oinarrian Bidegainen: “Ez dut imajinatzen herriko plazak itxita egon eta sarrera-irteerak kontrolatzea. Etxeko atean da kontzertua, herriko plazan; beraz, doan izan behar du”.

“ ”

Errazagoa litzateke sarrerak saltzea, baina Arizkun Rocken kontzeptua aldatuko litzateke; musikak libre izan behar du

Herriko jaietan antolatzen da jaialdia. Egun bakarrekoa izaten da, jaietz gaindiko egitarauarekin, baina festa girorako eskaintza bakarra, egun horretan, Arizkun Rock izaten da. Hiruzpalau musikari edo musika talde oholtza gainean izaten dira, arratsaldetik hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte. Udako egun beroenetan nahiko hilik behar lukeen herriari bizipoza eta hauspoa ematen dizkiote gazteek. Horregatik ere, doan behar du izan festibalak. Eta ez zaie axola zenbat jende hurreratzen den, musikaz goza



nahi duenak hor baitu aukera. Jende asko, gainera, herriko bestak direlako gerturatzen da.


GERTURATZE HUTSA, GUZTIEN MESEDERAKO

Bidegainek dio “arras kontent” daudela horregatik ere: “Herriko ostatu, benta, landetxe eta jatetxeek estimatzen dute turismo apurtxo bat izatea, nahiz eta noski, Erratzu eta Xorroxingo mailatik oso urrun egon. Azken hauek betetzen dira udan; gurea hustu egiten da. Behintzat, astebetetz bada ere, bizi apur bat egoten da gure herrian”.

Bulkada, dena den, alde bikoa ere bada, Arizkun Rocken finantzazio iturri handia izaten direlako bertako negozioak. Doakoa den gisan, jaialdiaren filosofiarekin bat dator Soulek dioen honako hau ere: “Autogestioan oinarritzen gara, ez dugu diru-laguntzarik jasotzen, baina jakitun gara ezinbesteko zutabe direla herriko negozioak. Lehen aipatutako tratua eta zaintza ere badaude hemen: joaten gara haiengana, nagusiarekin hitz egiten dugu, azaltzen diegu proiektua, nortzuk garen, zer asmo dugun, ze garrantzia duen Arizkungo herriarentzat, bailararentzat... Uste dut horrek ere merezi duela”.

Balioak aldarrikatzen dituen jaialdi txiki-handiak agur esango dio ibilbideari, eta ez dute beraz, berriz, udazkena heldu aldirorengoko ekainari begira jarri. Deskanstua hartuko dute momentuz, baina badute erronka txiki bat –edo balizko erronka bat, bederen–, epe motz eta ertainari begira: aukera zabaldu zaie ikus-entzunezko dokumentala egiteko Arizkun Rocken ibilbidearen inguruan.





ARIZKUN ROCK 2023

Albaro Soulek antolatu zuen lehen edizioa, 2015ean, lagun batekin elkartuta. Eider Bidegain urte batzuk geroago sartu zen antolakuntzan. 2023ko ekainaren 23an ospatuko da Arizkun Rock jaialdiaren azken edizioa; inork erreleboa hartzen ez badu behintzat. Apirilaren 12an egingo dute publiko aurtengo edizioaren kartela. ●

Pertsonaia historikoen itzal odoltsuak



DANI BLANCO

GURE HEROIAK

AXIER LOPEZ

ARGIA LIBURUAK^o, 2022

AMAIA ALVAREZ URIA

Gure heroiak. *Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten historia bat* izenburua du Axier Lopezek, ARGIAko kazetariak, kaleratu duen liburua. Begirada dekolonialaren uinea heldu dela esatera dator egilea, garaiak hala eskatzen duelako. Batetik, Black Lives Matter mugimenduak mundu mailan tokian tokiko “heroiak” berrikustera eraman du jendea estatuen eraispen eta kaleen berrizendapenekin. Testuinguru antiarrazista horrekin hasi eta amaitzen da liburua.

Tarteko kapituluetan, ordea, Elkanoren mundu biraren urteurrena dela eta egin berri diren ekitaldiei errepaso ematen zaie. Baita Elkanoren inguruko hitz eta irudien inguruko ikerketa egin ere. Baina Elkano ez da euskal kolonizatzaile bakarra, eta horregatik beste kapitulu batean “gure kolonialistak” eta

“gure esklabistak” aletzen dira. Zerrenda luzea da eta izenak ezagunak. Oso argi geratzen da nori egiten diogun gorazarre gure herrietako plaza, eraikin eta kaleetan.

Egilearen helburua da orain arte ezkutatu dena edo zuritu dena azalartzea: Euskal Herriak ere iragan kolonialista eta esklabista du eta horri buruz ikuspegi kritikoz hitz egin behar da, “unean uneko premiekin bat datorren kontzientzia kolektiboa eraikitzen laguntzeko” (Josep Fontana i Lázaro).

Horretarako, orain arteko diskurtsoen analisia egiten du eta diskurtso hegemonikoak bermatzeko eta diskurtso alternatiboak gutxiesteko erabiltzen diren zenbait klixeren berri ematen digu: “presentismoa” erabiltzea, memoria ezabatzea edo garaiaren arabera jokatu zuela esatea, adibidez.

Horrez gain, Elkanok, Urdanetak, Legazpik... Espainiar Inperioaren zerbitzura izandako partehartzea argitzen du: “XVI. mendearen amaieran badakigu 7 eta 9 mila gizon artean sartzen zirela urtero 'Indietara' joaten ziren konboietan, horietatik erdia baino gehiago euskalduna. Gerraontzietako armadetako tripulaziorikoa kideen artean euskaldunak ziren gehiengoa”.

Botere-harremanetan oinarritutako loriazko historia eta heroi hollywoodienseak eraiki beharrean, Ipar globaleko zuriak izateak ematen dizkigun pribilegioez jabetu eta etorkizun justuago batean bizitzeko memoria kritikoa osatzea proposatzen zaigu. Liburuarekin batera ARGIA aldizkariaren webgunean *Kolonialismoa* kanala ere badugu osagarri. ●



Eraiste neurtuak

  IÑIGO BASAGUREN

Gua da, kotxian sartzen naiz. Euri malkuak parabrisan ta ilargiak ez-tit esaten ez non, norekin ikusten zaittun gau hontan». Hitz hauekin eta kitarraren laguntzarik gabe aurkeztu zigun Anarik *Gure Mundua*, bere lehen lanaren lehen abestia. Hitz hauekin eza-gutu nuen nik bere mundua, nire ere egin dudana. Hitz hauekin hasi du, baita ere, Bilbon bere hitz guztien bilduma eta itzulpenak biltzen dituen liburuaren aurkezpena.

Hitz horiek bota zituen nire etxeko bozgorailuak 2004ko udazkenean, niretzat mundu berri bat izan behar zuenak lehen pausuak ematen zituen bitartean. Hainbeste zor diodan Oihan lagunak ekarri zidan diskoa etxera, azalean emakume baten aurpegi difuminatua zuena, nire gelako leihoan euri tantek gogor jotzen zuten batean. Ordukit, bere ahotsak, musikak eta hitzak nire bizitzaren soinu banda bilakatu dira. Azken hau egia borobila da topikoan

artean topikoena eta leku komunaren artean komunena bada ere. Nire zauri irekiak bere musikaren laguntzarekin bilakatu dira osatutako orbain. Aingura hegodunek gora eraman naute jausi naizen askotan, etxetik urrun egon eta *Zebra* diskoa jaso nuenean bezala. Bale baten eskeletoarekin topo egin nuen norbaitek sortu zuen basamortuan, bere usaina nire gelatik desagertzen hasia zenean, bere bihotzetik herbeste-ratu ninduenen. Txori suizidak aurkitu nituen norbaitek aspaldi grabatutako eta hegaluze lata baten barruan gorde zuen kasete zahar batean.

Aurkezpenean, Anarik Jerry Corralek egindako galderei erantzun bitartean, zauri eta bizipen askorekin oroitu naiz azkoitiarrak esandakoari adi nengoen bitartean. Bere hitzak itzultzeari buruz aritu da. Hitzak nola bizirik dauden kontatu digu, baita grabatu bitartean ere. Bere erreferenteak aipatu eta Ruperren musika Atxagaren hitzekin entzun zuen

ANARI (LIBURU AURKEZPENA)

NOIZ: Martxoak 16


NON: Anti liburudenda (Bilbo)

momentu katartikoa ekarri digu. Emakume* musikarien genealogiak egitera-ko orduan soilik emakumeak aipatzearen ohitura madarikatu eta belaualdi berrien lana goraiatu du, trap musika Anarirena baino tristeagoa iruditzen zaiola aldarrikatuz, sintetizadorearen eta ahotsen artean dagoen behe-akorde horren indarra azpimarratuz. Aurkezpeneari *Efemerideak* abestiarekin bukaera eman dio, orain gutxi J Martina taldeak bertsionatu duena. Abesti aproposa ziklo bat ixteko eta beste bati bidea emateko.

Gaur lotara joan aurretik liburua ireki eta buruz dakizkidan bere hitzak enegarren aldiz irakurriko ditut. Hamaika leku eta momentutara eramango naute. Gaur, ordea, ez da euri malkorik entzungo leihoen aurka. Agian, Anarik aurkezpenean esan bezala, abestiak ez dira berdin idazten –ezta entzuten ere– 20 urte bete berri edo 40 urte betetzear zaudenean. ●



Hitz gezidunak

OSPEA, SONA UGAZABA, NAGUSI	GUTXITU, MURRIZTU NAFARROA BEHEREKO HERRIXKA	IRINEZ UREZ ETA GATZEZ EGINDAKO JANGAIA	ZUKU EGUZKI	LETRA IZENA OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA	SU, GAR KAIKUAK, LELOAK	HALA-HOLA PERTSO- NAIAREN ABIZENA
		APUR BAT GEROAGO EUSKAL FONEMA				
TUTIK SARTZEN DUENA			HAITZURDIN LITROA			
				ARLOA SUARI DARIONA		
HEGAZTI MOTA	GAREN HAUEK UDAREA					RHESUS FAKTOREA ITZALPEAN
		GESAL				LURRA IRAULTZEKO LANABESA TRIPA
EUSKALTEGI SAREA ADITZA (LA- BURDURA)						
	ROENTGEN PERTSO- NAIAREN IZENA					BERGA MUTU
BIHARAMUN PROSELITOAK EGITEKO KARRA		GALDE PARTIKULA GAIXO	BURURATU GORA JOAN	IODOA ...APA, HITZEZ HITZ	JAINKO EGIPTOARRA 1501 ERROMAR ZENABIZ	UGAZTUN KARRASKARI, AKURI
						POTASIOA KONTSONAN- TE BIKOITZA
ARGI-IZPI HIZKUNTZA ZELTA			ERRUKITU KILOA			
				EGUR ZATI ERDI ERREA		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	8	6			3	2	1	5
3	5		2	8	6	7	4	
4	2				1			3
			3	5			9	
2			1	4				
			8			4	2	
			9				7	
					8	5	6	
		4		2	5	9		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Joko, olgeta.
- Zurezko pieza laua.
- Ilobak (Bizkaian).
- Emakumezkoa bere gurasoekiko.
- Ibar txiki eta hegal maldatsuko.

EBAZPENAK

8	7	4	6	2	9	7	4	8
1	9	2	7	3	8	5	6	4
6	3	5	9	1	4	8	7	2
5	1	3	8	6	9	4	2	7
2	6	1	4	7	3	5	8	
7	4	8	3	5	2	1	9	6
4	2	7	5	9	1	6	8	3
3	5	1	2	8	7	4	9	6
9	8	6	4	7	3	2	1	5

I	L	N	I	L	I	K	O	I	K	L	E	V	A	G
U	V	L	D	P	G	U	R	N	V	I	N			
K		O	S	M	I	T	I	S	E	L	I			
		V												
V	N	V	K							R				
L	E	B	E	S	V	A	B	E	K					
V	I	V	I	L	V	I								
H	R		K	E						G	U			
V	V	I	G	V	I	L	E	I	V	Z				
L	O	L	M	V	M	K	I	K	T	R	M			
O														
H														

Olatz Salvador Zaldua

UHALIK GABE KANTARI



OLATZ SALVADOR

LAGUNTASUNARI GORAZARRE

"Bide profesionalaz gain, oso aberasgarria izan da bidea. Istorio pertsonal polita izan dudana jendea aldean hartuta, *laguntasunari gorazarre* egin nahi nion, kritika batean esan zuten bezala. 900 pertsona ni ikustera etortzea ez da ohikoa, ezta normala ere: bost urteko bide hau horrela borobiltzea sekulako saria izan da. Babes handia sentitu nuen, eta oso eskertuta nago. Amaiera kontzertuak pena eta poza eman dizkit. Aurten bi agur kontzertu izan ditut, bata –Ska-keitana– betirakoa, edo bueltatzeko espektatiba gabea; eta beste hau prozesu baten baitakoa, baina oholtzara bueltatzekoa. Biek dute bertigo sentsazioa, baina itxierak egitea beharrezkoa da, eta ongietorriak ere izan dira".

"Sekulako saria da jakitea jendeak nire kantuetan babesgunea topatu duela"

Olatz Salvador Zalduak (1990, Donostia) berriki bukatu du *Aho uhal* diskoaren bira. Donostiako Victoria Eugenia antzokian agurtu zuen proiektua, 900 lagunaren aurrean. "Babes handia sentitu nuen eta oso eskertuta nago". Orain, aho uhalik gabe jauzi berriak egiteko hautua egin du, eta horretarako, atsedena hartuko du lehenik. Trostan bezain lasai, bizitakoaz, bidaiez, zamaz eta xarmaz mintzatu gara berarekin.

 IZAR MENDIGUREN COSGAYA

Zintzilik izan zen lehen diskoa, eta *Aho uhal* bigarrena. Bira amaierako kontzertu puskarekin uhala askatu duzu.

Horixe zen nahi nuena. Oraindik lan-karga handiarekin jarraitzen dut, edo nahi baino zeregin gehiagorekin, eta badut gogoa uhala guztiz askatzeko. Egia da bira amaitzeak zerbait handia eta ederra egin izanaren poztasuna eman didala: talde polita osatzearen atsegina, jendearekin konektatu izanaren sentsazioa... Oraindik ez ditut digeritu. Lasaitasuna da orain topatu nahiko nukeena.

Aurrera egiteko, beharrezkoa da gelditzea?

Niretzat bai. Badago bira amaitu aurretik hurrengo diskoa prest duen jendea, baina dena husteko prozesua behar izaten dut lehenago; leihoak irekita izan eta esponja gisa aritu, inguruan edo nire barnean gertatzen dena identifikatu eta jasotzeko. Esplorazioak bertigoa ematen du.

Zer izan da zuretzat *Aho uhal*?

Intentzio aitortpena izan daiteke, izenburutik hasita. Zaldia izatetik

aho uhalak eramatera, bidea zaila egiten zait: gidari izateko erresistentziak izaten ditut nire barnean proiektu batzuetan, eta borroka horretan nabil oraindik ere.

Bestalde, leiho asko ireki dizkit: Italian eta Galizian izan ginen hizkuntza gutxituen jaialdietan, Europan euskara non kokatua dagoen ezagutzeko aukera eman zidan, Japonen egon ginen, Finlandian ere bai... Gure txikitasunarekin konplexua dugu hemen, eta beste toki batzuetan balio berezia du. Niri horrek euskaraz egiten jarraitzeko indarra eman dit, baita hemendik kanpo maitasun hori jasotzeko aukera eder-rrak ere.

Dena den, ezereen gainetik, oholtzara hobetzeko *playgrounda* izan da niretzat. Hasieran errespetu handia ematen zidan, baina geroz eta erosoago sentitze-ko aukera eman dit bira honek. Beti ez duzu egun ona oholtzara igotzeko. Krisiak askotan egoten dira: esposizio maila altuak batzuetan erosoak ez diren uneak ematen dizkizu.



JON XABIER ZABALA

"Nire gauza berrien zain dagoenari pazientzia eskatzen diot. Bizitza frenetiko honetan denbora hartzea aldarrikatzen dut".

Espero zenuen bidea hastean halako erantzunik jasotzea?

Nire helburua, lehen unetik, ausartze-
ra pausua ematea zen. Nire gelako lau
pareten artean sortu dira kanta batzuk,
gitarrarekin, eta jendearengana iristeko
zubia eraikitzea zen asmoa. Hasieran,
badakit, horma handiak nituela prozesu
horretan, beldurra edo.

Unean uneko prozesuan murgildu
naiz, ez dut luzerako espektatibarik edu-
ki. Ez dut uste osasuntsua denik, ezta
errealista ere. Inoiz ez dakizu nora iritsi
zaitezkeen. Sekulako saria da jakitea nire
kantuetan babesgunea topatu duela jen-
deak beren esparru garrantzitsuetarako.
Jarraitzeko dudak motore handiena da.

Lehen, Skakeitan taldean, bigarren planoan aritzen zinen, teklatuan. Lehen lerroa eta bakarkakora pasa zinen gero. Ahalduntze ariketa izan da bidea?

Bai. Egiteko beharra sentitu nuen, baina
kosta zitzaidan klik egitea edo buelta
handi horri tamaina hartzea. Bigarren
mailan egotetik, izen-abizenekin lehen
lerroan egotera pasatu nintzen. Oraindik
ere batzuetan damutzen naiz ezizen bat
asmatu ez izanaz, baina zintzotasun ari-

keta bat ere badago hor: maskara guz-
tiak kendu eta *ni* behintzat agertu eta
nolabait biluztearen ausardia.

"On egiten badizu, gelditu hor; min ematen badizu, ez egon hor". Musika eraldaketarako armatzat duzu?

Bai, badu gugan eragiteko ahalmena.
Esaldia Ane Labakarena da. Aldarrika-
pen berri bat bihurtu da neurri txikian
bada ere, eta pintaketak ere iritsi zaizkit.
Kanta bidez sendatzen laguntzea ederra
da. Alaiak Martinek, azken kontzertuan,
nire musika "zauriturik gaudenontzako
ospitalea" zela esan zuen. Ez diot behar
ez duen boterea eman nahi: terapiak eta
benetako ospitaleak beharrezkoak dira,
baina musikak badu gauza txiki batzuk
aldatzeko boterea. Eta, nire musikak
hori edukitzea ere nahiko nuke, eta an-
tza, klik txikiak egiteko balio izan du.

Salvador abizenak zure buruan edo inguruan, zer eman dizu: aukera, presioa ala indarra?

Ez dok hamairuko omenaldi gehienetan
egon naiz, nire aitak eta osabak paper
garrantzitsua izan dute euskal esze-
na honetan, baina horrekin apurtzeko
beharra ere sentitu dut: nire lekua bi-

latzekoa, eta ez inertziaz jasotzekoa...
Batzuk *Mikel Laboa berria* deitzen di-
date, eta mota honetako etiketak ez di-
tut nahi: asko pisatzen dute, eta ez dute
laguntzen, nahiz eta nonbait politetik
jaio direla jakin. Bakoitzak beretik egitea
aldarrikatzen dut.

Rozalenekin abesten ikusi zaitugu, abestien istorioak bideoklipetan ere gorpuzten... Ez duzu mugarik?

Gustatuko litzaidake mugarik ez iza-
tea (barreak). Beti egongo dira mugak:
denborarenak, ekonomikoak, jakintzak
emandakoak... Baina muga posible ho-
riek desagerrarazi eta berriak eraiki-
tzearekin amestu daiteke, gero berriro
bota eta gehiago eraikitzeko.

Nire gauza berrien zain dagoenari
pazientzia eskatzen diot; nire erabakia
izan da lasai hartzea. Gainera, bizitza
frenetiko honetan denbora hartzea al-
darrikatuko dut, eta musika beste era
batean entzutea. Musika hainbeste eta
hain azkar entzutearekin agortu egi-
ten dugu: musika zabaltzaile izan behar
gara, eta ez horren kontsumitzaile. *Slow
food* aldarrikatzen den gisa, nik *slow
music* aldarrikatu nahi dut. Hau ez da
txurreria bat. ●

Euskararen aldeko politikak, aje komatoso baten ondoren

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Lehenbiziko gauza, etxeko lanak: irakurri egin behar da azkeneko *Larrunen* Iñaki Iurrebasok esan duen guztia. Berdin da datorren hilabetean beste ezer irakurtzeko tarterik hartzen ez baduzu ere. Abandonatu berehala artikulu hau, iruditzen bazaizu Lander Arbelaitzek eta Asier Basurtok soziolinguista legazpiarrari egin dioten elkarrizketa leitzeko denbora kenduko dizula, denok baikara kontingenteak, baina irakurgai hori beharrezkoa da. Eta beharrezkoa da, euskararen egoerari buruz dauzka-gun uste ustelen hauste sistematikoari ekiteko lehen urratsa delako.

Edari gehiegi nahastuz pasatako mozkorraldi komatosoaren ajetik esnatzen zaituen ur baldekada bezalakoa baita Iurrebasok dakarren ikuspegia. Eta eskatzen du, gaur bertatik hasita, azkeneko bi hamarkadetan –gutxienez– modu akritiko samarrean sinetsi ditugun mantra askori bolumena jais-tea. Nagusiki bati, esaten duena euskararen ezagutzan geroz eta hobeto gabiltzala eta orain fitxa guztiak erabileran jartzea dela afera. Gauzak dezentzera konplikatzen dizkio Iurrebasok ikuspegi –zoritxarrez– hegemoniko horri: “Egungo gaitasunaren baldintzetan, euskararen erabilera %1 eta %18aren tartean egongo da nahitaez. Iturri bera erabiliz, ikusten dugu euskararen erabilera %15 inguru dagoela, askoz gertuago maximo posibletik, minimo posibletik baino”.

Alegia, dakiguna kontuan izanda, asko hitz egiten dugu. Datu deigarri bat: erabiltzen dutenen ia erdia, berez, errazago moldatzen da erdaraz, eta jarrera positiboak bultzatuta egiten du ahalegina –beraz, aldapan gora ari da, nekatzeko arrisku handi samarrarekin–. Gordinago esan daiteke: ederki izorratuta gaude, pentsatzen baldin badugu arazo estrukturaleri heldu ordez *coaching*



Martxoaren 23an hezkuntza euskalduntzearen alde egindako manifestazioa.

GAZTE EUSKALTZALEEN SAREA

motibazionalako dinamiketan bakarrik tematuta zeozertan aurreratzea lor daitekeela. “Euskal hiztun benetan gaituak ekoiztea” da erronka, Iurrebasok argi dauka –eta portzierto, ez al geneukan hori lortzeko inbento bat? “Hizkuntza politika” deitzen genion, edo nola zen? Aspaldi ez dut ikusi, parean tokatzen bazaizue eman goraintziak nire partez–.

Erronka guztiz deserosoa da, hala ere, gaitasuna agertzen zaigulako argazkiaren erdian. Eta klaro, gaitasunak zuzen-zuzenean egiten du talka gaitasunarekin. Has zaitez orain desmuntatzen azken urteotan euskaraz txukun samar aritzeko ezintasuna ezkutatu beharrez sortu diren diskurtso horiek denak, euskararen aldeko jarrera duten kontubernio, kofradia eta tribuetan ere asko ugaritu direnak: arau gramatikalak errespetatuz idaztea, euskara hutsean aritzea eta horrelako kontuak purismotzat, elitismotzat eta gauza are txungoagotzat jo dituztenek, segur aski, denbora beharko dute onartzeko bi-

lakaera historiko eta harreman sozial zehatzen ondorioz kostatzen zaiela erगतiboa behar den tokian jartzea –baina jarri, jarri behar dela–. Alegia, problema ez dagoela euskaraz beste edozein hizkuntzatan exijitzen den maila bera eskatzean, hizkuntza-maila hori lortzeko baldintza objektiboen faltan baizik.

Asuntu hau argitu beharreko zerbait dela iruditzen zait, datu soziolinguistikoak hartu eta politika eraldatzaileak pentsatzen hasten garenean, sarritan errekako ura gure baldera botatzen bezala aritzen garelako. Operazio horretarako erabiltzen dugun tresna, portzierto, galbahe bat izaten da; edo, kasurik onenean, zulatutako katilu bat. Eta azkenean, baldean dagoenak gehiago dauka guk ikusi nahi dugunetik, benetan eramatea lortu dugun uretik baino. Jarduteko modu boluntarista horretatik perspektiba zientifikoz lan egitera sekulako jauzia legoke: hartzen ote dugu gai hau horrelako salto bat emateko adinako seriotasunez? ●



SENDABELAR BARATZEA

Garbiñe Larrearen liburu berria

Sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

Hasberrientzat zaintzen lan handirik emango ez diguten hamabi sendabelarren baliabide terapeutiko, kosmetiko eta gastronomikoak ekarri ditugu orri hauetara.

Izan ere, geure beharretara egokitzen diren sendabelarrak landuz gero, osasuntsu egoteko behar ditugun erremedioak presta ditzakegu.

Sendabelar baratzea lur sail batean zein etxeko lorontzian egin dezakegu.

Orrialde kop.: 40 **Neurria:** 22 cm (diametroa)

Prezioa **14,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.





Prezioa **32,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan
40€-tik gorako erosketetan. Erosketak
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**